



# EKOBAROMETRO SOZIALA 2011

EAEko HERRITARREK INGURUMENARI  
BURUZ EGITEN DUTEN BALORAZIOA



Herri-baltza  
Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

#### ARGITARALDIA:

2011ko uztaila

#### ARGITARATZAILEA:

**Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa**

Urkixo Zumarkalea, 36 - 6. solairua (Bizkaia emparantza) 48011 Bilbo

Tel.: 94 423 07 43 • Fax: 94 423 59 00

info@ihobe.net • www.ihobe.net

#### EDUKIA:

Lan hau Ihobek prestatu du, Ikertalderen laguntzarekin.

#### DISEINUA ETA DIAGRAMAZIOA:

Canaldirecto • www.canal-directo.com

#### ITZULPENA:

Traductores e Intérpretes S.A.

#### LEGE GORDAILUA:

BI-2836/2011



Liburu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira:  
Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 3.0 Unported  
(informazio gehiago <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>).

Dokumentu hau egiteko, % 100ean birziklatutako papera erabili da, klororik gabea. Erabilitako paperak egiaztagiri hauek ditu: Aingeru Urdina, Europako Iparraldeko Beltxarga eta Europako Etiketa Ekologikoa.



# EKOBAROMETRO SOZIALA 2011

EAEko HERRITARREK INGURUMENARI  
BURUZ EGITEN DUTEN BALORAZIOA




Herri-baltza  
Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA





**PILAR UNZALU**

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen,  
Lurralde Plangintza, Nekazaritza  
eta Arrantzako sailburua

*Pilar Unzalu*

# AURKEZPENA

Euskal Autonomi Erkidegoko Gizarte-Ekobarometroa 2011 euskal herritarrek ingurumen errealtateaz dituzten behar eta kezkek aztertzen dituen txostena da. Gizarte analisi honek administrazioari laguntzen dio ingurumen politikak, jarduerak eta programak EAEko herritarren iritziaren arabera doitzen, arlo honetan estrategia egokiak diseinatzeko herritarren hautemate eta kezkek ezagutzea beharrezkoa dela jakinda.

Gizarte-Ekobarometroa 2011ren emaitzek gizartea gehien kezkatzen duen ingurumen-gaia Klima Aldaketa dela adierazten dute. EAEko hamar biztanletik bik ingurumenean duten eraginaren ardura zuzena onartzen dute. Datu esanguratsua da eta erakusten du ingurumenean kalteak eragiten dituzten kausetan herritarrak erantzukizun partekatua dutela onartzen hasiak direla. Hala ere, oraindik joera handia dago eragin horien ardura beste eragile batzuei leporatzeko, hala nola industria-sareari edo garraiobideei.

EAEri egun eragiten dioten krisi ekonomikoa eta langabezia direla eta, herritarrak aberastasuna sortzea eta enplegua ugaritzea jo dituzte helburu nagusitzat. Egoera honetan, EAEko biztanleen erdiak ingurumen politikak bultzatzeko apustua egiten du, etorkizuneko aukera ekonomikoa izango direlakoan.

Bestalde, herritarren gehiengo zabalak ingurumena babesteko ahaleginak egiten dituela adierazi du; nahiz eta % 20k bakarrik uste duten ahalegin horiek eragin positiboa dutela.

Oro har, herritarren % 50ek EAEn ingurumen egoera hobetu egin dela uste dute, baina mundu mailan okerrera egin duela.

Onartu berri den Euskadiko Garapen Iraunkorrerako Estrategiak, EcoEuskadi 2020k, datozen 10 urteetan EAEko administrazioek jarraitu beharko duten ibilbide orria finkatuko du, aurreikusitako erronka guztiei erantzuna eman ahal izateko. Gizarte-Ekobarometro honen ondorengo argitalpenek bere ezarpenarekin jasotako emaitzak erakutsiko dituzte, eta ahalbidetuko digute ingurumen arloko esku-hartze publikoak doitzeko zorrotzagoak eta eraginkorragoak izan daitezen, EAE garapen iraunkorraren abangoardian ezarritik.







# AURKIBIDEA

<b>SARRERA ETA ALDERDI METODOLOGIKOAK</b>	<b>6</b>
<b>1. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA</b>	<b>8</b>
1. Ingurumen arazoei buruzko informazio maila (9) 2. Ingurumen gaiei buruzko informazio falta (10) 3. Ingurumenari buruzko informazioaren iturri nagusiak (11)	
<b>2. INGURUMEN JARRERA ETA JOKABIDEA</b>	<b>14</b>
1. Jarrera pertsonala eta ingurumen aurrejoera (15) 2. Ingurumen arazoan eragile nagusiak (19)	
<b>3. INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIA DEN KONTSUMOA</b>	<b>22</b>
1. Ingurumen aldetik jasangarria den kontsumoari buruzko informazioa (23) 2. Ingurumen aldetik jasangarria den jokabideari buruzko pertzepzioak (25) 3. Ingurumen aldetik jasangarria den kontsumoari laguntzeko xedez onartzen diren sakrifizioak (27) 4. Ingurumen aldetik jasangarriak diren produktuen eskaintzaren irisgarritasuna (29) 5. Herri administrazioen jokabide eredugarria kontsumo jasangarriaren alorrean (30)	
<b>4. INGURUMEN EGOERARI BURUZKO PERTZEPZIOA</b>	<b>32</b>
1. Ingurumen arazoei buruzko kezka maila (33) 2. Kezka handiena sortzen duten ingurumen gaiak (34) 3. Oraingo ingurumen egoerari buruzko pertzepzioa (36)	
<b>5. KLIMA ALDAKETA</b>	<b>38</b>
1. Klima Aldaketaren eragina eta sortutako kezka maila (39) 2. Klima Aldaketari buruzko informazioa (42) 3. Klima Aldaketaren kausa nagusiak (44) 4. Klima Aldaketarekin zerikusia duen jokabide pertsonalari buruzko pertzepzioak (45) 5. Klima Aldaketaren aurkako borrokari laguntzeko onartzen diren sakrifizioak (47) 6. Herri administrazioaren jokabide eredugarria Klima Aldaketaren alorrean (48) 7. Euskal gizartearen kezka eta jardura maila klima aldaketaren alorrean (49)	
<b>6. BIODIBERTSITATEA</b>	<b>52</b>
1. 'Biodibertsitate' terminoaren ezagutza maila (53) 2. 'Biodibertsitateari' mehatxu egiten dioten gaien inguruko pertzepzioak (55) 3. Biodibertsitatearekin zerikusia duten erakunde eta/edo entitateen inguruko ezagutza maila (tokikoak eta nazioartekoak) (56)	
<b>7. INGURUMENA TOKIKO ESPARRUAN</b>	<b>58</b>
1. Toki mailako ingurumen arazoak (59) 2. Toki mailako ingurumen programei buruzko ezagutza (60)	
<b>8. INGURUMEN POLITIKAK</b>	<b>64</b>
1. Ingurumenaren lekua EAren helburuen artean (65) 2. Ingurumen politiken garrantzia (67) 3. Erabaki politikoaren mailak eta ingurumen arazoak konpontzeko bultzatutako legedia (71) 4. EAeko ingurumen jardueren nahikotasun maila (74)	
<b>ONDORIOAK</b>	<b>76</b>

# SARRERA ETA ALDERDI METODOLOGIKOAK

2011ko Ekobarometro Soziala, lhobek bultzatutako ekimena –Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa da lhobe–, ibilbide luzeko azterlan bat da, aukera eskaintzen duena EAEko herritarrek ingurumenari buruz adierazi dituzten kezka eta pertzepzioak neurtzeko eta horren inguruko konklusioak ateratzeko.

Hala, euskal herritarrek zenbait ingurumen-balorazioen eta beren oraingo bizi-estiloaren inguruan dituzten iritziak aztertzea eta kontuan hartzea funtsezko tresna da Administrazioarentzat, hortik abiatuta hauxe egin baitezake:

- Ingurumenaren alorreko politika eta jarduera egokiak definitu,
- eta, aldi berean, behar den bezala erantzun euskal herritarrek adierazitako eskariei.

Tresna analitiko den aldetik, Ekobarometroak euskal gizartearen ingurumen-ikuspegiaren erretratu estatiko eta eguneratua eskaintzen du berez, eta, horrekin batera, bidea ematen du joerei, jarrera aldaketei eta jokabideei buruzko interpretazio-analisi bat garatzeko, eboluzioaren ikuspuntutik.

Alde horretatik, gure erkidegoaren eremuan, azterlanaren erreferentzia konparatiboak aurreko Ekobarometroetako emaitzekin lotzen dira (2001, 2004 eta 2008ko edizioak). Nazioartean, berriz, 2011ko Ekobarometroaren emaitzak Europa mailan gauzatutako azterlan batzuekin kontrastatzen dira. Hain zuzen ere:

- «Attitudes of Europeans towards the issue of biodiversity» izeneko 290 Flash Eurobarometroan argitaratutako datuak, EBko 27 herrialdeetan egindako landa-azterketa baten bidez eskuratuak. Lan hori Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak sustatu zuen eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak koordinatu.
- 2009ko urtarrilean eta otsailean gauzatutako «Europeans attitudes towards climate change» izeneko 313 Eurobarometro Berezian argitaratutako datuak.
- Europar Batasuneko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren eskariz 2007 urtean egin zen «Attitudes of European citizens towards the environment» izeneko 295 Eurobarometro Berezian argitaratutako datuei dagokienez, kasu batzuetan soilik egin dira alderaketak, hau da, iruditu zaigunean denborazko desfaseak ez zuela eragin nabarmenik eskuratutako emaitzetan.

Bestalde, panoramika orokorrak azterketa geografikoaren dimentsioa hartzen du Lurralde Historikoen arabera, eta baita genero eta adinaren dimentsioa ere; gainera, azterlanaren epigrafe konkretu batzuetan, ingurumen-balorazioak bereizi egin dira elkarrizketatutako pertsonen ikasketa mailaren eta estatus sozioekonomikoaren arabera.

Ikuspuntu metodologikotik begiratuta, operazio estatistikoaren eta landa-azterketaren fitxa teknikoak erakusten duen taula bat aurkezten da jarraian.



**2011ko EKOBAROMETRO SOZIALAREN FITXA TEKNIKOAK**

<b>UNIBERTSOA</b>	15 urteko edo hortik gorako herritarrak, EAEn bizi direnak. 2010eko udal erroldaren arabera, biztanleen kopurua 2.178.339 da.
<b>TEKNIKA</b>	Hurbilpen pertsonaleko elkarrizketa, etxez etxe eginda, CAPIz (Computer Assited Personal Interviewing) gauzatutako galdetegi egituratu batean oinarrituta.
<b>LAGINAREN TAMAINA</b>	EAEn bizi diren 2.004 pertsona, gutxienez 15 urtekoak.
<b>LANDA AZTERKETAREN SASOIA</b>	2010eko Azaroa eta Abendua.
<b>LAGINKETA MOTA</b>	Eta anitzeko laginketa, proportzioak zentsu-sekzio motaren arabera ezarriz, EAEko udalerrien pisu demografikoa kontuan hartuta, adinaren eta sexuaren arabera estratifikatuta. Ausazko 167 ibilbide egin dira, bakoitza 12 inkestakoa.
<b>ERRORE MARGINA ESTATISTIKOA</b>	Errore-margina globala % $\pm 2,23$ da, % 95,5eko konfiantza-tartearentzat.

**EAEko 2011ko EKOBAROMETRO SOZIALAREN EDUKIAK**

<b>SARRERA</b>	Azterlanaren testuinguru orokorra eta prozesu estatistikoaren fitxa metodologikoa.
<b>1. INGURUMEN-INFORMAZIOA</b>	Ingurumen-arazoei buruzko informazio maila.
<b>2. INGURUMEN-JARRERA ETA INGURUMEN-JOKABIDEA</b>	Jarrera pertsonala, ingurumen-aurrejoera eta ingurumen-arazoen eragileak.
<b>3. INGURUMENAREN ALDETIK</b>	Ingurumen aldetik jasangarria den kontsumoari buruzko informazioa, jokabide pertsonalaren inguruko pertzepzioak, ingurumen aldetik jasangarria den kontsumoari laguntzeko onartutako sakrifizioak, ingurumen aldetik jasangarriak diren produktuen eskaintzaren irisgarritasuna, Herri Administrazioaren jokabide eredugarria ingurumen aldetik jasangarria den kontsumoaren aurrean.
<b>4. INGURUMEN-EGOERARI BURUZKO PERTZEPZIOA</b>	Ingurumen-arazoei buruzko kezka maila, ingurumen-gai kezkarrienak, oraingo ingurumen-egoerari buruzko pertzepzioa.
<b>5. ALDAKETA KLIMATIKOA</b>	Klima Aldaketaren eragina eta sortutako kezka maila, Klima Aldaketari buruzko informazioa, Klima Aldaketaren kausa nagusiak, jokabide pertsonalari buruzko pertzepzioak Klima Aldaketari lotuta, onartutako sakrifizioak eta Herri Administrazioaren jokabide eredugarria.
<b>6. BIODIBERTSITATEA</b>	Terminoaren ezagutza maila, «biodibertsitateari» mehatxu egiten dioten gaiei buruzko pertzepzioa eta Biodibertsitatearekin zerikusia duten erakunde eta/edo entitateei buruzko ezagutza maila.
<b>7. INGURUMENA TOKIKO EREMUAN</b>	Toki mailako ingurumen-arazo nagusiak eta toki mailako ingurumen-programen ezagutza.
<b>8. INGURUME-POLITIKAK</b>	Ingurumenak EAEko helburuen artean duen posizioa, ingurumen-politiken garrantzia, erabaki politikoaren mailak, ingurumen-arazoak konpontzeko xedez bultzatutako legedia eta EAEko ingurumen-jardueren nahikotasun maila.

# 1. INCURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Lehenengo kapitulu honetan jorratuko diren alderdiak euskal gizarteak ingurumen-arazoei buruz duen informazioarekin lotutakoak dira. Hiru dira aztertu nahi ditugun helburuak:

- Lehenik, jakin nahi dugu zer iritzi duten herritarrek ingurumen-arazoei buruz duten informazio mailaz.
- Bigarrenik, identifikatu nahi dugu zein diren informazio handiagoa behar duten ingurumen-arazoak.
- Eta, azkenik, saiatuko gara zehazten zein diren ingurumenari buruzko informazioa eskaintzen duten iturri nagusiak.




## 1. INGURUMEN ARAZOEI BURUZKO INFORMAZIO MAILA

Herritarren iritzia oinarritzat hartuta, esan daiteke euskal gizarteak informazio maila handia duela. Izan ere, EAEko hamar biztanletatik ia zazpi uste dute informatuta daudela –% 9k oso informatuta eta % 60k nahiko informatuta– oraingo ingurumen-arazoei buruz. Bilakaeraren ikuspuntutik begiratuta, zifra horiek adierazten dute beren burua informatutzat hartzen duten pertsonen ehunekoa modu esanguratsuan igo dela (% 61tik % 69ra pasatu da 2008tik 2011ra).

### 1. GRAFIKOA.

#### USTE DUZU PERTSONA INFORMATUA EDO DESINFORMATUA ZARELA ORAINGO INGURUMEN ARAZOEI DAGOKIENEZ?



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAI	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
OSO INFORMATUTA	9	8	8	11	10	8	7	10	9	7
NAHIKO INFORMATUTA	60	64	57	64	63	58	56	63	65	52
NAHIKO DESINFORMATUTA	25	23	28	20	22	27	27	22	22	32
OSO DESINFORMATUTA	6	4	7	5	5	7	10	5	3	9
ED/EE	1	2	0	1	1	1	0	0	1	1

Iturria: Ithobe 2008, 2011. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission 2007.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

— Lurraldeei dagokienez, desinformazio maila handiena Bizkaian aurkitzen dugu, zeren bertako herritarren % 35k adierazi baitu ez duela informazio nahikorik ingurumen-arazoei buruz; gainerako lurraldeetan, proportzio hori % 25 da, gutxi gorabehera.

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

— Informazioa eskura dutenen proportzioa handiagoa da gizonen kolektiboan, beren informazioa maila emakumezkoen kolektiboarena baino % 7 handiagoa baita.

— Adinari dagokionez, informazio maila txikiagoa da gazteen artean (kolektiboaren % 63k uste du oso edo nahiko informatu dagoela) eta nagusien artean (kolektiboaren % 59).


— Ikasketa mailaren eta klase sozialaren ikuspuntutik, aurreikustekoa zen bezala, informazio mailak gora egiten du ikasketa maila eta klase soziala igotzen diren neurrian.

## 2. INGURUMEN GAI EI BURUZKO INFORMAZIO FALTA

Herritarren pertzepzioaren arabera, informazio-falta nabariena duten ingurumen-gaiak hauexek dira, ordena honetan: genetikoki eraldatutako organismoen erabilera (herritarren % 46k aipatu du), eguneroko produktu kimikoek gure osasunean duten inpaktua (% 36), nekazaritzaren eta abeltzaintzaren alorreko kutsadura (% 32) eta Biodibertsitatearen galera (% 27).

### 2. GRAFIKOA.

#### ONDOREN ADIERAZTEN DIREN INGURUMEN GAIEN ARTEAN, ZEIN HIRUTAN NABARITZEN DUZU INFORMAZIO FALTA HANDIENA?



Iturria: Ilobe 2011.

Nahiz eta datu hauek ezin diren zehaztasunez alderatu aurreko edizioetako datuekin (behintzat ehunekoen arabera neurtuta)<sup>1</sup>, esan daiteke goian adierazitako lau gaiak berresten dituztela; beraz, 2008an bezala, lau gai horiek informazio-falta handiena duten gaien rankingaren buruan agertzen dira.

Kontrako muturrean, berriz, gai hauek agertzen dira: hiri-arazoak (% 6), kontsumo-ohiturak (%8), hondakinen eta zaborraren hazkundera (% 7), zarata eta garraiabideen ondorioak (% 9); izan ere, horiei buruz desinformatuta sentitzen diren herritarrak biztanleriaren % 10 baino gutxiago dira.

Azterketak erakusten duenez, euskal gizarteak lehenengo fasea gainditu du, alegia, egunerokotasun handiena duten ingurumen-arazoaren ezagutza, eta orain teknikoago, espezifikoago eta/edo berriagozat har daitezkeen beste alor batzuk erreklamatzeko dituzte.

Lurralde-aldagaien eta aldagai soziodemografikoen azterketak ez du aparteko iruzkinik eskaintzen. Ez dago desberdintasun handirik ingurumen-problematikari buruzko eskari nagusiei dagokienez. Kasu guztietan, gai berberak aipatzen dira ordena eta pisu berdintsuarekin.

### **3. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOAREN ITURRI NAGUSIAK**

Euskal herritarren gehiengo handiak telebistaren bidez jasotzen du ingurumenari buruzko informazioa. Ekobarometro Sozialaren aurreko edizioan bezala, ingurumen-informazioaren iturri nagusi bezala aipatzen direnak hauexek dira: telebistako albisteak (hamar herritarretatik ia zortzik bere hiru iturri nagusien artean sartzen dute), egunkariak (% 65) eta irratia (% 44).


Azpimarratu daiteke Internetek gero eta garrantzi handiagoa hartu duela azken urte hauetan, ingurumen-gaiei buruzko hedabide bezala; biztanleriaren % 27k baino gehiago aipatzen du, filmen eta telebistako dokumentalen gainetik. Hiru urtean, % 33ko igoera izan du.

Hala eta guztiz ere, informazio-iturrien azterketan sakontzen badugu, azpimarratu behar da idatzizko materiala (egunkariak, aldizkariak eta liburuxkak) dela ingurumenari buruzko informazio modalitate nagusia, zeren herritarren % 47k lehen aukera bezala aipatzen baitu. Era horretan, agerian geratzen da komunikabide hori dela egokiena, orain arte, ingurumenearekin zerikusia duten gaiak azaltzeko.

<sup>1</sup> Ekobarometroaren aurreko edizioan, informazio-falta handiena zein 5 ingurumen-gaitan nabaritzen zen galdetzen zen; oraingo edizioan, berriz, 3 gairi buruz soilik galdetu da.

3. GRAFIKOA.

**ZEIN DIRA INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO ERABILTZEN DITUZUN HIRU ITURRI NAGUSIAK?**




% EHUNeko BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
EGUNKARIAK	65	52	66	71	69	62	47	65	7	65
ALDIZKARIAK	17	13	17	17	15	18	19	15	20	14
TELEBISTAKO ALBISTEAK	78	80	79	74	76	80	76	78	76	82
IRRATIA	43	33	47	43	43	44	20	34	51	60
FILMAK ETA TELEBISTAKO DOKUMENTALAK	22	33	18	23	21	23	29	22	21	19
ELKARRIZKETAK SENIDEEKIN, LAGUNEKIN, ETA ABAR	16	19	17	15	15	18	25	16	15	15
INTERNET (FOROAK, SARE SOZIALAK, ETA ABAR.)	28	22	29	28	33	23	59	43	18	3
ARGITALPENAK, LIBURUXKAK, INFORMAZIO-MATERIALAK	11	8	9	15	10	12	13	13	10	9
EZ ZAIT INTERESATZEN INGURUMENA	0	2	0	0	0	1	1	0	0	1
BESTEREN BAT	0	0	0	0	0	1	1	0	0	0

Iturria: Ihobe 2008, 2011. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission 2007.



#### 4. GRAFIKOA. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIO MODALITATE NAGUSIA (ERANTZUNEN LEHENENGO AUKERA)



Iturria: lhobe 2008, 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

- Lurraldeen ikuspuntutik begiratuta, joera orokorra mantentzen bada ere, badira azpimarratu beharreko berezitasun batzuk. Arabaren kasuan, telebistako albistek eta dokumentalek inpaktu handiagoa dute ingurumenaren dibulgazio-bitarteko bezala (% 80 eta % 32, hurrenez hurren). Gipuzkoan, berriz, egunkarien bidez (% 71) eta liburuxka edo argitalpenen bidez (% 15) jasotzen den informazioak beste lurraldeetan baino pisu proporzional handiagoa du. Bizkaian, irratia pisua azpimarratu behar da (% 47).
- Ingurumariari dagokionez, udalerrri txikiagoetan pisu handiagoa dute informazio-kanal klasikoek, hala nola egunkariak eta telebistako albistek. Hiri-inguruneetan, berriz, handiagoa da informazio-iturri sofistikatuagoen erabilera (film eta dokumentalak eta Internet).

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

- Generoaren arabera, gizonak eta emakumeak gure gizartean okupatzen duten posizioarekin bat datozen joera batzuk antzematen dira. Gizonen kasuan, egunkarietatik eta Internetetik informatzen dira gehiago. Emakumeen kasuan, berriz, telebistako albistek, aldizkariak eta harreman pertsonalek pisu handiagoa dute informazio-iturri gisa.
- Interneten bidezko informazioa bereziki esanguratsua da pertsona gazteenen kolektiboan; izan ere, 15 eta 24 urte bitarteko pertsonen % 60k eta 25 eta 44 urte bitartekoen % 40k baino gehiagok erabiltzen dute informazio-bide hori. Beraren erabilera asko jaisten da adin horretatik aurrera (% 12ra jaisten da, gutxi gorabehera).

## 2. INGURUMEN JARRERA ETA JOKABIDEA

Bigarren kapitulu honetan bi atal bereizten dira. Lehenengoaren helburua da euskal gizartearen tipologia egitea beraren ingurumen-jarrera eta jokabidearen arabera; bigarrenaren helburua da ingurumen-arazoan eragile nagusiei buruzko informazioa jasotzea.





## 1. JARRERA PERTSONALA ETA INGURUMEN AURREJOERA

### 1.1. Ingurumenari buruzko jarrera pertsonala

Ingurumenari buruzko jarrera pertsonalari dagokionez, euskal herritarren laurdenek uste dute ingurumenaren alde egiten dituzten ahaleginek emaitza positiboa dutela. Hori da jarrera egokiena erakusten duen kolektiboa.


Hala eta guztiz ere, talde nagusia -euskal gizartearen erdia baino gehiago- osatzen dutenak dira ingurumenaren alde jardun nahi izan arren eszpetiko agertzen direnak horrek izan ditzakeen emaitza edo efektuen aurrean, baldin eta beste pertsona batzuek edo kutsatzaile handiek -enpresak edo industria, adibidez- ez badute gisa bereko ahaleginik egiten.

Gainera, gizartearen bostenak gehiago egin nahi luke ingurumenaren alde, baina uste du horrek desabantaila nabarmenak ekartzen dizkiola (denbora dedikatzea, kostu ekonomikoak...) -% 14- edo ez daki zer egin dezakeen -% 7-.

Bukatzeko, biztanleriaren % 4 ez dago kezkatuta ingurumenagatik, edo ez du pentsatzen arriskuan dagoenik.

#### 5. GRAFIKOA.


#### ONDORENGO BAIEZTAPENEN ARTEAN, ZEIN DA ONDOEN ISLATZEN DUENA INGURUMENAREN AURREAN DUZUN EGOERA PERTSONALA?



## 1.2. Ingurumena babesteko ahaleginak

Informazio gehigarri gisa, azpimarratu daiteke EAEko hamar biztanletatik zazpik baino gehiagok esaten dutela ahalegin pertsonalak egin ohi dituztela ingurumena babesteko (sarri askotan edo sarritan). Zifra hori aurreko ediziokoaren antzekoa da, gutxi gorabehera.

GRAFIKOA 6.  
**ZURE USTEZ, ZER NEURRITAN EGITEN DITUZU AHALEGINAK INGURUMENA BABESTEKO?**



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
ASKOTAN	19	29	14	21	17	21	14	21	19	16
SARRITAN	53	46	55	54	53	54	43	49	60	55
GUTXITAN	25	22	28	22	26	24	39	27	20	24
INOIZ EZ	3	2	3	3	4	1	4	3	1	4
ED/EE	1	1	0	1	1	0	0	1	0	1

Iturria: Ihobe 2008, 2011.

### LURRALDE-ALDERDIAK

— Lurraldeen arabera, ingurumena babesteko ahaleginak apur bat txikiagoak dira Bizkaian; izan ere, lurralde horretan, herritarren % 69k soilik aitortzen du ingurumen-ahaleginak egiten dituela askotan edo sarritan. Araban eta Gipuzkoan, berriz, % 75era iristen da kolektibo hori.

### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

— Aztertutako aldagai soziodemografikoei begiraturaz, bada harri-dura sortzen duen datu bat, alegia, pertsona gazteenak (15 eta 24 urte bitartekoak) direla ahalegin gutxien egiten dituztenak

ingurumena babesteko (kolektibo horretako pertsonen % 57ek soilik dio ahaleginak egiten dituela askotan edo sarritan); kolektibo konprometituena, berriz, 45 eta 64 urte bitarteko pertsonen osatutakoa da, zeren hamar pertsonetatik ia zortzik esaten baitute ahalegin esanguratsuak egiten dituztela.

— Generoaren arabera, emakumeek ahalegin handiagoa egiten dutela ikusten da (% 75 emakumeek eta % 70 gizonek).


— Datuek erakusten dutenez, bada zuzeneko erlazioa ikasketa mailaren eta ingurumena babesteko xedez herritarrek beren gain hartuko lituzketen ahaleginen artean. Ikasketarik ez dutenen % 63k dio ingurumena babesten saiatzen dela. Ikasketak mailak gora egin ahala, ehuneko hori haziz doa, % 78ra iritsi arte goi mailako ikasketak dituztenen kolektiboan.

### 1.3. Herritarren ezaugarriak beren jarreraren aldetik

Ingurumena babesteko xedez herritarrek egindako ahaleginei buruz eta horren inguruan duten jarrera pertsonalari buruz galdetutakoaren erantzunak abiapuntutzat hartuta, biztanleria lau kategoriatan sailka daiteke: Konbentzitutakoak, Eszeptikoak, Konbentzitu gabekoak eta Konprometitu gabekoak. Kategoria bakoitzaren definizioa eta haien banaketa 7. grafikoan ikus daitezke.

#### 7. GRAFIKOA.

#### HERRITARREN EZAUGARRIAK BEREN JARRERAREN ALDETIK



Iturria: Ilobe 2008, 2011.

Bereziki nabarmentzen da pertsona eszeptikoen kolektiboa (hamarretatik lau baino gehiago); pertsona horiek ingurumena babesteko ahalegin esanguratsuak egiten dituzte, baina uste dute horren efektua ez dela handia izango gainerako eragileek ere modu berean jokatzen ez badute.

Nolanahi ere, datu horiek aurreko edizioetako emaitzekin alderatzen baditugu, muturreko jarrerak finkatzen direla ikus dezakegu. Hala, gora egiten dute bai pertsona konbentzituen kolektiboak (2008an % 16 zen, eta orain % 20) eta bai konprometitu gabeko pertsonen kolektiboak (% 25etik % 28ra), eszeptikoen eta konbentzitu gabekoak kalterako.

### 1.4. Ingurumena babesteko ekintzak egiteko prestasuna

Ingurumena babesteko xedez euskal herritarrek egiten dituzten apustu nagusiak hauek dira: alde batetik, hondakinak edo zaborra beren birziklapenari begira sailkatzea; bestetik, garraio publikoa erabiltzea ibilgailu pribatua erabili beharrean.

Ingurumenaren babesari laguntzeko xedez, euskal herritar gehienak prest egongo lirateke –batez ere– hondakinak edo zaborra birziklapenari begira sailkatzeko (% 74) eta ibilgailu pribatuaren ordez garraio publikoa erabiltzeko (% 64). Maila urrunago batean, iritzien % 40arekin, etxebizitzako energia-kontsumoa murriztearen aldekoak daude. Hiru aukera horiek 2008an ere lehenetsi ziren, ordena berean.

Ingurumena babesteko ekintzei dagokienez, herritarren onarpen txikiena dutenak hauexek dira: zerga handiagoak ordaintzea (herritarren % 3k soilik aukeratu du) eta ingurumen-alderdiak kontuan hartzea gastu handia dakarten erosketak egiterakoan (% 12).

8. GRAFIKOA.

**ONDORENGOEN ARTEAN, ZEIN DIRA INGURUMENAREN BABESARI LAGUNTZEKO EGINGO ZENITUZKEEN HIRU EKINTZAK?**



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
HONDAKINAK/ZABORRA BIRZIKLAPENARI BEGIRA SAILKATZEA	74	80	73	72	73	75	71	72	76	74
GARRAIO PUBLIKOA AHALIK ETA GEHIEN ERABILTZEA	64	51	67	66	62	67	68	60	67	67
ETXEBIZITZAKO ENERGIA-KONTSUMOA MURRIZTEA	40	46	37	42	41	39	37	43	39	38
HONDAKIN/ZABORRAREN SORRERA MURRIZTEA	35	28	34	40	36	35	37	33	36	37
KONTSUMO-PRODUKTUEN BALIO-BIZITZA LUZATZEA	34	32	34	34	34	33	30	36	33	32
PRODUKTU EKOLOGIKOAK ETA/EDO BERTOKO PRODUKTUAK EROSTEA	22	19	21	26	22	22	29	24	22	16
INGURUMEN-ALDERDIAK KONTUAN HARTZEA GASTU HANDIKO EROSKETAK EGITERAKOAN	12	12	14	10	14	12	13	16	12	7
ZERGA HANDIAGOAK ORDAINZEA INGURUMENAREN BABESARI LAGUNTZEKO	3	1	5	2	4	3	3	4	3	3
AURREKO AUKERETAKO BAT ERE EZ	1	2	1	1	2	1	0	2	0	1

Iturria: Ihobe 2011.



Joera hori aztertutako biztanleria-segmentu guztietan aurkitzen dugu, eta baita lurralde historiko guztietan ere; dena dela, beharrezkoa da berezitasun batzuk aipatzea.

### LURRALDE-ALDERDIAK

- Araban sentsibilizazio handiagoa dago hondakinen eta zaborren birziklapenarekin, eta joera txikiagoa garraio pribatuaren ordeztar garraio publikoa erabiltzeko. Seguruena, lurraldearen orografikak berak baldintzatzen du jarrera hori: biztanleria hiriburuan kontzentratzen da; udalerrien arteko distantzia handiagoa da, eta garraio publikoaren eskaintza eta maiztasuna txikiagoa da gainerako udalerrietan.

### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK


- Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan onartzen dute garraio publikoaren erabilera, ibilgailu pribatuaren ordeztar.
- 25 eta 44 urte bitarteko adin-taldeko pertsonak dira joera txikiena dutenak garraio publikoa erabiltzeko, ibilgailu pribatuaren ordeztar. Produktu ekologikoen eta bertoko produktuen erosketan, aldiz, arruntagoa da kolektibo gazteenean.

## 2. INGURUMEN ARAZOEN ERAGILE NAGUSIAK

Aurreko urteetan bezala, herritarrek uste dute lantegiak direla ingurumen-arazoaren eragile nagusiak. Izan ere, euskaldunen erdiek baino gehiagok horrela pentsatzen dute. Hortik nahiko urrun, herritarrak berak eta garraiabideak agertzen dira eragile bezala (herritarren %16k aipatu du horietako bakoitza). Adinean gora egin ahala, joera handiagoa antzematen da ingurumenaren zailtasunen erantzukizuna herritarrei berei leporatzeko, enpresen erruduntasun maila gutxituz.

### 9. GRAFIKOA.

#### ONDORENGO ERAGILEEN ARTEAN, ZEIN DA EAEN DAUDEN INGURUMEN ARAZOEN ERAGILE NAGUSIA?



% EHUNeko BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
LANTEGIAK	53	62	48	59	52	55	59	54	54	50
HERRITARRAK, ORO HAR	16	16	19	12	15	17	18	18	17	12
IBILGAILU PRIBATUA	16	10	18	15	17	15	12	12	15	25
ERAIKUNTZA ETA OBREN ENPRESAK	6	3	7	6	7	6	6	8	7	3
TURISMOA	2	2	2	1	2	2	1	2	2	1
BESTE GARRAIABIDE BATZUK (HEGAZKINA, ITSASONTZIA...)	2	1	1	3	2	2	1	2	2	2
NEKAZARIEN ETA ABELTZAINEN KOLEKTIBOA	1	1	2	1	2	1	0	1	2	2
BESTEREN BAT	2	3	2	2	3	2	1	3	2	3
ED/EE	1	3	1	2	1	2	2	1	1	2

Iturria: Ihobe 2001, 2004, 2008, 2011.

Estratuen araberako azterketak ez du desberdintasun handirik erakusten iritzi orokorraren aldean, jarraian aipatuko ditugun berezitasun batzuk kenduta.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

- Bizkaian –Araba eta Gipuzkoaren aldean– pisua galtzen dute ingurumen-arazoan eragile nagusiak lantegiak direla usten duten pertsonak; horren ordez, gora egiten du herritarrek berek eta garraiabideek duten erantzukizunak.
- 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan, pertzepzioa kontrakoa da. Izan ere, joera handiagoa dago ingurumen-arazoan eragile nagusiak lantegiak direla pentsatzeko, herritarrei eta garraiabideei leporatzen zaien erantzukizuna murriztuz.

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

- Adinean gora egin ahala, gora egiten du ingurumen-arazoan eragile nagusiak ibilgailu pribatuak direla dioen iritziak.
- Ikasketa mailan eta klase sozialean gora egin ahala, joera handiagoa dago ingurumen-arazoak herritarrei berei leporatzeko.





# 3. INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIA DEN KONTSUMOIA

Hirugarren atal honetan ingurumen aldetik jasangarria den kontsumoari buruzko zenbait gai aztertzen dira: EAEko herritarrek duten informazio eta kontzientziario maila, mota horretako produktuen eskaintzaren irisgarritasuna eta Herri Administrazioaren jokabide eredugarria.




## 1. INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIA DEN KONTSUMOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Euskal gizartearen gehiengoak % 62, hain zuzen ere- uste du baduela informazio nahikoa ingurumen-kontsumo egokia egiteko. Datu horrek erakusten du erakunde batzuk egiten ari diren ahalegina eraginkorra dela ingurumen-politikak euskal familiengana helarazteko. Izan ere, 2008 urtean, ingurumen aldetik egokia den kontsumoa egiteko prest sentitzen ziren herritarrak biztanleriaren % 54 ziren; hiru urte geroago, berriz, kolektibo horrek % 8ko igoera izan du.

Datu honetaz egin daitekeen beste interpretazioa da oraindik ere, gaur egun, hiru pertsonatik batek informazio-gabezia nabariak dituela kontsumo jasangarria egiteko.

### 10. GRAFIKOA.

#### USTE DUT INFORMAZIO NAHIKOA DUDALA INGURUMEN ALDETIK EGOKIA DEN KONTSUMOA EGITEKO




% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (ASKO)	16	10	19	14	15	17	16	16	18	15
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	46	46	43	51	48	44	45	47	48	43
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	29	32	30	25	29	29	31	29	27	29
EZ NAGO BATERE ADOS (EZER EZ)	7	8	6	8	7	8	6	8	6	8
ED/EE	2	4	2	2	1	3	2	1	1	6

Iturria: Ilobe 2008, 2011.

Euskal gizarteak ingurumen-kontsumoari buruz duen informazio maila zehazteko eta egiaztatzekeo xedez, produktu ekologiko konkretu batzuen inguruan duen informazio mailaz galdetu zaie herritarrei: etxetresna elektrikoak, garbiketako produktuak, kontsumo pertsonaleko produktuak, elikagaiak, eta altzariak eta zuraren deribatuak.

Aipatutako bost produktu mota horietatik, ezagunenak hauexek dira: kontsumo txikiko etxetresna elektrikoak (% 56,3) eta elikagai ekologikoak (% 51,9). Horien ostean, garbiketako produktuak datoz, baina haien inguruko ezagutza maila euskal biztanleriaren % 39,7ra jaisten da. Azken postuetan, berriz, honako hauek daude: kontsumo pertsonaleko produktuak (% 29,9) eta baso-jatorria duten produktu jasangarriak (altzariak eta zuraren deribatuak), gizartearen % 15,3k baino ez baititu ezagutzen.

**11. GRAFIKOA.**  
**ONDOREN PRODUKTUEI BURUZKO INFORMAZIOA IZATEA**



Iturria: Ilobe 2011.

● ASKO ● NAHIKO ● GUTXI ● EZER EZ ● ED/EE

**LURRALDE-ALDERDIAK**

— Lurralde historikoen arabera, kontsumo jasangarria egiteko gutxien informatuta dagoen biztanleria Arabakoa da. Kolektiboaren % 40k dio oso informazio gutxi duela edo ez dagoela batere informatuta.

**ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK**

— Ikasketa maila zenbat eta handiagoa den, orduan eta informazio gehiago dago kontsumo jasangarria egiteko.

— Emakumeek gizonek baino informazio gehiago dute garbiketako eta zaintza pertsonaleko produktu ekologikoei buruz. Etxetresna elektrikoak eta zuretik deribatutako produktuak, berriz, ezagunagoak dira gizonez artean.

— Adinen arabera, pertsona gazteek informazio-gabezia handiagoak dituzte etxetresna elektrikoari, garbiketako produktuei eta baso-jatorri ekologikoko produktuei dagokienez. Pertsona nagusiagoen kasuan, berriz, batez bestekoaren aldean dituzten desberdintasun esanguratsuenak garbiketako eta kontsumo pertsonaleko produktuei eta elikagai ekologikoei dagozkie.




## 2. INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIA DEN JOKABIDEARI BURUZKO PERTZEPZIOAK

Datuek erakusten dutenez, euskal herritarrek badute kontzientzia beren jokabidearen ekarpenaz eta garrantziaz, ingurumenaren zaintzari dagokionez. Herritarren % 80k baino gehiagok uste dute ingurumen aldetik jasangarria den kontsumoa garatzeak ekarpen pertsonala egin diezaiokeela ingurumenaren hobekuntzari.

Gainera, herritarren proportzio esanguratsu batek (% 39) uste du ingurumen-kontsumoa egitea lagungarria dela prestigio soziala handitzeko.

12. GRAFIKOA.


### NIRE USTEZ, INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIA DEN KONTSUMOA EGINEZ –NIRE MAILAN INGURUMENAREN HOBKUNTZARI LAGUNDU DIEZAIOKET



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (ASKO)	34	27	39	29	33	35	30	38	34	30
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	47	46	44	53	48	47	45	46	51	45
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	14	18	14	14	14	14	22	13	12	15
EZ NAGO BATERE ADOS (BATERE EZ)	2	4	2	3	3	2	2	2	2	4
ED/EE	2	6	1	2	2	2	1	1	1	6

Iturria: Ihobe 2011.

GRAFIKOA 13.  
**NIRE USTEZ, INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIA DEN KONTSUMOA EGITEAK  
PRESTIGIO SOZIALA EMATEN DU**



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (ASKO)	12	13	13	9	13	11	13	12	12	11
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	28	34	28	25	28	28	29	29	29	25
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	29	27	28	31	30	28	31	29	31	25
EZ NAGO BATERE ADOS (BATERE EZ)	24	15	25	26	24	24	22	24	23	26
ED/EE	8	11	6	9	6	9	6	6	5	13

Iturria: Ilobe 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

- Araban, ingurumena hobetzeari begira egin daitekeen ekarpenarekin dagoen desadostasun maila % zoraino igotzen da.
- Lurralde horretan, dena dela, herritarren % 46k uste du ingurumen aldeetik jasangarria den kontsumoak prestigio soziala igoarazten duela. Tasa horrek EAeko 20.000 biztanletik beherako udalerrietan ere igotzen da (% 45).

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK


- Ingurumena hobetzeari begira norberak egin dezakeen ekarpenaren aurrean, nagusienez eta gazteenek osatzen duten kolektiboa da eszeptikoena.

### 3. INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIA DEN KONTSUMOARI LAGUNTZEKO XEDEZ ONARTZEN DIREN SAKRIFIZIOAK

Beste alderdi positibo bat da euskal herritarren % 84 prest egongo litzatekeela kontsumo-ohitura batzuk aldatzeko, ingurumenaren zaintzari laguntzeko. Dena dela, nahiz eta datu hori benetan altua den eta biztanleriaren herena guztiz ados dagoen, oraingo egoera ekonomikoa ez da lagungarria jokabide arduratsuagoak bultzatzeko. Izan ere, ikus daitekeenez, gai horren inguruan zegoen aldeko iritzia atzera egin du 2008tik hona, 5 puntuz jaisi baita beraren ehunekoak.

14. GRAFIKOA.

**PREST EGONGO ZINAKETE KONTSUMO OHITURA JAKIN BATZUK ALDATZEKO,  
 INGURUMENA GEHIAGO ERRESPETATZEKO?**




% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (ASKO)	35	30	35	36	34	36	39	41	34	24
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	49	52	48	50	50	49	42	46	56	50
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	12	12	13	9	11	12	17	11	8	16
EZ NAGO BATERE ADOS (BATERE EZ)	3	1	2	4	4	1	2	2	2	5
ED/EE	2	5	1	2	2	2	1	2	1	5

Iturria: Ilobe 2008, 2011.

Familiaren ekonomiarentzat kostu ekonomiko handiagoa sortzen duten ingurumen-neurriek orain dela hiru urte baino onarpen txikiagoa dute. Euskal gizartea bi bloketan bereizten da, proportzio berdintsukoak: herritarren % 53 horrelako ekintzak gauzatzearen alde agertzen da, eta % 45 horren aurka. Dena dela, 2008an, herritarren % 73 agertzen zen produktu arruntak garestitzearen alde, hori baliagarria bazen gutxiago kutsatzeko; orain, berriz, iritzi hori duen kolektiboaren ehunekoa 20 puntuz jaitsi da.

15. GRAFIKOA.

**PREST EGONGO NINTZATEKE PRODUKTU BATENGATIK GEHIAGO ORDAINTEKO, BALDIN ETA GUTXIAGO KUTSATZEN BADU**



% EHUNeko BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (ASKO)	14	7	16	15	15	13	12	16	14	12
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	39	36	37	42	39	39	35	40	43	33
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	29	34	27	29	28	29	34	28	27	31
EZ NAGO BATERE ADOS (BATERE EZ)	16	19	17	13	17	16	17	15	15	19
ED/EE	2	5	2	1	2	3	2	2	1	5

Iturria: Ilobe 2011.

**LURRALDE-ALDERDIAK**

- Araban bizi diren pertsonak dira gutxien onartzen dutenak produktu batengatik gehiago ordaintzea, produktu horrek gutxiago kutsatzen duelako (iritzi hori dutenek herritarren % 53 dira Araban, % 44 Bizkaian eta % 42 Gipuzkoan).

**ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK**


- Pertsona gazteenak eta nagusienak dira gutxien onartzen dutenak beren kontsumo-ohiturak aldatzea.
- Eta, joera berberari eutsiz, pertsona gazteenak eta nagusienak dira neurri handienez errefusatzeko dutenak diru gehiago gastatzea ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuak erosteko.
- Ikasketa maila eta estatus sozial altuagoko pertsonak dira kontsumoa garestitzea gehien onartzen dutenak. Kolektibo horietan, herritarren % 60 baino gehiago dago neurri horren alde.

## 4. INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIAK DIREN PRODUKTUEN ESKAITZAREN IRISGARRITASUNA

Ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuak lortzeko erraztasun edo zailtasunari dagokionez, gizartearen erdiak baino apur bat gehiagok (% 53) uste du ez dela erraza horrelako produktuak eskuratzea. Hala eta guztiz ere, azken hiru urteotan nabarmenki murriztu da talde hori, zeren 2008an biztanleriaren % 63ra iristen baitzen.

16. GRAFIKOA.

### USTE DUT ERRAZA DELA AURKITZEA INGURUMENA GEHIAGO ERRESPETATZEN DUTEN PRODUKTUAK



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (ASKO)	9	5	9	11	8	10	8	10	9	9
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	33	33	29	41	33	33	36	34	36	28
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	38	41	40	33	40	36	38	35	40	40
EZ NAGO BATERE ADOS (BATERE EZ)	16	14	17	13	15	16	14	18	14	14
ED/EE	5	7	5	3	4	5	4	4	2	10

Iturria: Ihobe 2008, 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

— Kasu honetan, Bizkaian bizi diren pertsonak dira zailtasun handienak dituztenak horrelako produktuak eskuratzeko (% 57).

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK


— Ikasketa maila altuagoa duten herritarrek erraztasun handiagoa dute ingurumena errespetatzen duten produktuak aurkitzeko, horren inguruan duten informazioa handiagoa izateari esker.

## 5. HERRI ADMINISTRAZIOEN JOKABIDE EREDUGARRIA KONTSUMO JASANGARRIAREN ALORREAN

Bukatzeko, aztertu dugu ea herri administrazioen jokabidea eredugarritzat hartu ote daitekeen kontsumo jasangarriaren alorrean. Horri dagokionez, herritarren gehiengoak uste du administrazioek ez dutela bultzatzen ingurumen aldetik jasangarria den kontsumoa (% 58k iritzi hori du; % 24 ez dago batere ados, eta % 34 ez dago oso ados).

17.GRAFIKOA.

### HERRI ADMINISTRAZIOETAN IKUSTEN DUDAN JOKABIDEAK BULTZATZEN NAU INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIA DEN KONTSUMOA EGITERA



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (ASKO)	8	6	9	6	8	8	7	8	7	9
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	29	37	31	23	30	29	33	28	31	27
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	34	35	30	39	33	34	36	36	34	29
EZ NAGO BATERE ADOS (BATERE EZ)	24	14	26	27	25	24	20	26	25	24
ED/EE	5	8	4	5	4	6	4	3	3	11

Iturria: Ilobe 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK


— Gipuzkoan, Herri Administrazioaren jokabidearekin ados ez dagoela dioen kolektiboa biztanleriaren % 66 da. Araban, berriz, biztanleriaren % 49ra jaisten da proportzio hori.

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

— 25 eta 44 urte bitarteko herritarren artean eta beren burua langile-klasean kokatzen dutenen artean, % 61raino igotzen da Herri Administrazioaren jardunarekin ados ez dagoela adierazten duen kolektiboa.

18. GRAFIKOA.

**INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIA DEN KONTSUMOARI BURUZ DAUDEN  
PERTZEPZIOEN LABURPENA**



Iturria: Ilobe 2011.



# 4. INGURUMEN EGOERARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Hiru dira kapitulu honetan jorratuko diren gaiak: ingurumen-arazoel buruz herritarrek duten kezka malla, arazo horien identifikazioa, eta ingurumen-egoerari buruzko pertzepzioa lurralde-eremu bakoitzean (toki mailan, erkidegoan eta munduan).



## 1. INGURUMEN ARAZOEI BURUZKO KEZKA MAILA


Euskal gizarteak ingurumenaren aurrean duen kezka mailak oso altua izaten jarraitzen du.

Ingurumen-arazoen eragindako kezka maila hainbat urtez etengabe igo ostean, Ekobarometroaren azken edizio honetan jaitsiera txiki bat antzematen da ingurumenagatik nahiko edo oso kezkatuta azaltzen diren pertsonen ehunekoan (% 85 azken edizioan, eta % 89 2008an).

Era horretan, gora egiten du ingurumenagatik gutxi kezkatzen diren edo batere kezkatzen ez diren pertsonen ehunekoak (%16ra iritsi da; 2008an, berriz, %10 zen proportzio hori).

### 19. GRAFIKOA

#### INGURUMENAREN ARAZOENGATIK KEZKATUTA ZAUDELA ESANGO ZENUKE?



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
OSO	30	23	28	35	29	30	19	31	32	29
NAHIKO	55	56	56	52	55	55	60	52	59	52
GUTXI	14	17	15	11	15	13	21	16	9	15
BATERE EZ	2	3	1	2	2	1	0	1	1	4
ED/EE	0	1	0	0	1	0	1	1	0	1

Iturria: Ilobe 2001, 2004, 2008, 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

- Araban esanguratsua da ingurumenagatik gutxi kezkatzen diren edo batere kezkatzen ez diren pertsonen kolektiboak duen presentzia (biztanleriaren % 20).

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

- Halaber, aurreko edizioetan bezala, kezka maila txikiagoa da gizonen artean (% 17) eta herritar gazteen artean (% 21).
- Gainera, ikus daitekeenez, ikasketa maila igotzen den neurrian gora egiten du ingurumen-arazoen sortzen duten kezka ere. Hala, adibidez, goi mailako unibertsitate-ikasketak dituzten herritarren % 41 oso kezkatuta dago ingurumen-arazoen ingurumenagatik; ikasketarik ez dutenen kasuan, berriz, ehuneko hori % 16 baino ez da.

## 2. KEZKA HANDIENA SORTZEN DUTEN INGURUMEN GAIAK


Euskal gizartearen ustez, ingurumen-gai kezkarrienak hauexek dira, ordena honetan: Klima Aldaketa, pertsonen sortutako hondamenak, hondamen naturalak eta uraren kutsadura.

Aurreko edizioan bezala, euskal gizarteak kezkarrientzat jotzen dituen ingurumen-gaiak hauexek dira: Klima Aldaketa (herritarren % 45ek aipatzen du), pertsonen sortutako hondamenak –hala nola petrolio-isuriak edo istripu industrialak– (% 34), hondamen naturalak (% 32) eta uraren kutsadura (% 30)<sup>2</sup>. 2007an, UE 27k ere gai horiek hartzen zituen kezkarrientzat.

Kontrako muturrean, berriz, gai hauek agertzen dira kezka gutxien sortzen duten ingurumen-arazo bezala: garraibideen ondorioak (% 5), gure kontsumo-ohiturak (% 8) eta hiri-arazoak (% 8).

20. GRAFIKOA.

### ONDORENGO INGURUMEN GAIEN ARTEAN, ZEIN DIRA GEHIEN KEZKATZEN ZAITUZTEN HIRURAK?



Iturria: Ihobe 2011.


<sup>2</sup> Datu hauek, nahiz eta ezin diren zehaztasun osoz alderatu aurreko edizioetan lortutako datuekin –ehunekotan–, bidea ematen dute ranking mailako alderaketak egiteko. Era horretan, ikus daitezke 2008ko edizioko rankingaren lehenengo postuetan zeuden 4 gaiak buruan jarraitzen dutela orain ere.

Bilakaeraren ikuspuntutik begiratuta, esan behar da genetikoki eraldatutako organismoen erabilera gora egin duela gai kezagarrienen rankingean (azken postutik –15/15– bederatzigarren postura –9/15– pasatu da); hondakin eta zaborraren hazkundeak, aldiz, postu batzuk galdu ditu (8/15 postutik 12/15 postura pasatu da).

Ingurumen-arazoan eta horiei buruz sentitzen den informazio-faltaren arteko azterketa konparati-  
boak bidea ematen du ingurumen-gai horiek lau multzo edo kategoriatan sailkatzeko:

- **1. multzoa:** lehenengo multzo hau lehentasunezkoena da; bertan sartzen diren ingurumen-arazoak dira kezka maila handiena sortzen dutenak eta herritarren aldetik informazio-falta «ertaina» dutenak –herritarrek informazio-falta sumatzen dute horien inguruan–. Multzo honetako ingurumen-problematiken artean, Klima Aldaketa, pertsonen eragindako hondamenak, hondamen naturalak eta uraren kutsadura sartzen dira.
- **2. multzoa:** garrantziaren ikuspuntutik, bigarren multzoan sartzen diren problematikak dira kezka maila «ertaina» sortzen dutenak eta herritarren aldetik –beren esanetan– informazio-falta «ertaina» ere dutenak. Multzo horretan sartzen dira airearen kutsadura, biodibertsitatearen galera eta baliabide naturalen agorpena.
- **3. multzoa:** bada beste ingurumen-arazo multzo bat, berari buruzko informazio-falta nabaria izan arren arazo kezagarrienen artean ez dagoena. Gai hauekin zerikusia duten arazoak hauek dira: produktu kimikoen erabilera, genetikoki eraldatutako organismoak eta nekazaritzak eta abeltzaintzak eragindako kutsadura.
- **4. multzoa:** bukatzeko, ingurumen-gai multzo mardul bat identifikatu ahal izan da –gai gehien biltzen dituen–, herritarren artean kezka gutxien sortzen dituzten eta informazio-falta gutxien duten gaiez osatuta. Honako gai hauek dira: zarata, hondakin eta zaborren hazkundea, hiri-arazoak, kontsumo-ohiturak eta garraiabideen ondorioak.

### INGURUMEN GAI NAGUSIEN POSIZIONAMENDUA, INGURUMEN KEZKA MAILAREN ETA INFORMAZIO FALTAREN ARABERA



- |   |  |
|---|--|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Klima Aldaketa</li> <li>2. Pertsonen eragindako hondamenak (petrolio-isuriak, istripu industrialak)</li> <li>3. Hondamen naturalak (uholdeak, lurrikarak...)</li> <li>4. Uraren kutsadura (itsasoak, ibaiak, lakuak...)</li> <li>5. Airearen kutsadura</li> <li>6. Biodibertsitatearen galera (animalia, baso eta oihanen desagertzea, eta abar)</li> <li>7. Baliabide naturalen agorpena</li> <li>8. Eguneroko produktu kimikoen gure osasunean duten eragina (detergenteak, kremak...)</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>9. Genetikoki eraldatutako organismoen erabilera</li> <li>10. Nekazaritzako eta abeltzaintzako kutsadura (pestizidak, ongarriak...)</li> <li>11. Zarata</li> <li>12. Hondakin eta zaborraren hazkundea</li> <li>13. Hiri-arazoak (auto-pilaketak, berdegunerik eza...)</li> <li>14. Gure kontsumo-ohiturak</li> <li>15. Garraioak ekarritako ondorioak (autoaren erabileraren igoera, autopista/errepideen eraikuntza, trafikoak eragindako kutsadura)</li> </ol> |
|---|--|

Iturria: Ilobe 2011.

### 3. ORAINGO INGURUMEN EGOERARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Ingurumen-egoerari dagokionez, hobekuntza orokorra antzematen da espazio hurbilenetan (tokiko maila eta erkidego maila); munduari dagokionez, gehiengo handi batek uste du egoerak okerrera egin duela.


Ikus daitekeenez, EAEko hamar biztanletatik seik uste dute beren udalerriko ingurumen-egoerak hobera egin duela azken urteotan. Ehuneko hori % 56ra hurbiltzen da autonomia erkidegoaren egoera orokorra baloratzerakoan.

Munduari dagokionez, herritarren % 40 inguruk uste du egoera okerrera joan dela; hobekuntza sumatzen dutenak, berriz, % 20 baino gutxiago dira.

2008an eskuratutako datuen aldean, datu horiek balantze positibo garbia erakusten dute, zeren orduan baino % 10 gehiago baitira ingurumenak hobera egin duela antzematen duten pertsonak, bai beren udalerrian eta bai EAEn.

#### 21. GRAFIKOA.

#### ZURE USTEZ, INGURUMENAREN EGOERAK HOBERA EGIN DU AZKEN URTEOTAN ZURE UDALERRIAN, EAEn ETA MUNDUAN, BERDIN DAGO EDO OKERRERA EGIN DU?



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
<b>UDALERRI MAILAN</b>										
HOBERA EGIN DU	62	62	68	53	64	61	60	57	67	66
BERDIN JARRAITZEN DU	23	21	22	26	22	24	25	27	20	21
OKERRERA EGIN DU	10	12	7	15	10	10	8	12	10	9
ED/EE	4	6	3	6	4	5	7	4	3	5
<b>EAE MAILAN</b>										
HOBERA EGIN DU	56	55	61	50	58	55	50	54	61	57
BERDIN JARRAITZEN DU	25	23	25	25	25	25	31	27	21	24
OKERRERA EGIN DU	10	9	7	16	11	9	10	12	10	8
ED/EE	9	13	8	9	7	10	10	7	8	12
<b>MUNDU MAILAN</b>										
HOBERA EGIN DU	17	16	17	15	16	17	23	16	15	16
BERDIN JARRAITZEN DU	26	26	30	19	24	27	27	26	26	25
OKERRERA EGIN DU	42	39	40	47	45	39	39	47	41	37
ED/EE	16	19	13	19	14	17	11	11	18	22

Iturria: Ilobe 2011.

### LURRALDE-ALDERDIAK

- Lurraldearen ikuspuntutik begiratuta, pertzepzio horiek apur bat baikorragoak dira Bizkaian eta Araban.
- Udalerrri handietan eta txikietan bizi diren herritarrek pertzepzio berdintsua dute munduko ingurumen-egoerari buruz (gutxi gorabehera % 41ek uste du egoerak okerrera egin duela); ingurune hurbilagoari dagokionez –norberaren udalerrria edo EAE–, berriz, iritzia desberdina da. 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrrietan bizi diren pertsonak jarrera ezkorragoa dute ingurumen-egoerari buruz. Egoera hobetu dela uste duten herritarrak % 44 dira udalerrriaren kasuan, eta % 39 EAERI dagokionez.

### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

- Adinaren arabera, pertsona nagusien kolektiboak (45 urtetik gora) dira ingurumen-egoeraren hobekuntza gehien antzematen dutenak, batez ere lurralde-eremu hurbilenei dagokienez.
- Ikasketa mailak ere joera desberdinak adierazten ditu. Hala, ikasketa maila igotzen den neurrian, gero eta handiagoa da ingurumen-egoerak hobera egin duela uste dutenen kolektiboa, bai bizi diren udalerrriari dagokionez eta bai EAERI dagokionez. Nolanahi ere, kontua munduko egoera baloratzea denean, iritzia ez da hainbeste aldatzen hezkuntza mailarekin.

# 5. KLIMA ALDAKETA

**Klima Aldaketari buruzko kapitulu honetan zenbait gai jorratzen dira: euskal gizarteak fenomeno horren inguruan dituen iritzia, kezka maila eta informazio maila; klima Aldaketaren eragileen identifikazioa; eta herritarren eta Administrazioaren jokabidea fenomeno horri aurre egiteko.**






## 1. KLIMA ALDAKETAREN ERAGINA ETA SORTUTAKO KEZKA MAILA

Klima Aldaketari buruzko kapitulu honetan zenbait gai jorratzen dira: euskal gizarteak fenomeno horren inguruan dituen iritzia, kezka maila eta informazio maila; Klima Aldaketaren eragileen identifikazioa; eta herritarren eta Administrazioaren jokabidea fenomeno horri aurre egiteko.

Klima Aldaketa zerbait agerikoa da euskal herritar gehienentzat. Horrela adierazten du biztanleriaren % 69k. Aldi berean, baina, gure gizartean esanguratsua da horrelako baieztapenen aurrean eszeptiko agertzen direnen pisua ere. 2008an, biztanleriaren % 19k ez zuen uste Klima Aldaketa gertatzen ari zenik; orain, berriz, talde hori biztanleriaren % 25 izatera pasatu da –ehuneko sei puntuko igoera–.

### 22. GRAFIKOA.

#### ZER NEURRITAN ZAUDE ADOS KLIMA ALDAKETA GERTATZEN ARI DELA DIOTENEKIN?




% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
OSO ADOS NAGO	31	31	29	36	33	30	29	37	31	26
NAHIKO ADOS NAGO	38	38	39	37	38	38	40	35	40	39
EZ NAGO OSO ADOS	19	19	22	14	19	19	21	17	21	18
EZ NAGO BATERA ADOS	6	5	5	8	6	7	5	7	4	8
ED/EE	6	7	5	6	5	6	7	5	4	9

Iturria: Ihobe 2008, 2011.

Gizartearen gehiengoa kezkatuta dago Klima Aldaketak EAEn izan dezakeen eraginagatik. Hamar pertsonatik seik iritzi hori dute; nolahi ere, esan dugun bezala, kezka maila ehuneko 13 jaitxi da azken hiru urteotan, zeren 2008an herritarren % 76 nahiko edo oso kezkatuta baitzegoen Klima Aldaketagatik.

Etorkizunari begira ere, gehiengo da Klima Aldaketaren mehatxupean sentitzen den kolektiboa (% 58), nahiz eta ehuneko hori handiagoa zen 2008an (% 65).

23. GRAFIKOA.  
**ZER NEURRITAN ZAUDE KEZKATUTA KLIMA ALDAKETAK EAEn  
IZAN DEZAKEEN ERAGINAGATIK?**




% EHUNeko BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
OSO KEZKATUTA	14	10	15	14	13	14	14	17	13	10
NAHIKO KEZKATUTA	49	42	52	49	50	49	44	47	56	46
GUTXI KEZKATUTA	29	34	29	27	30	29	35	30	25	31
BATERE EZ KEZKATUTA	6	12	4	8	6	6	6	5	5	11
ED/EE	1	2	1	1	1	2	1	1	1	2

Iturria: Ihobe 2008, 2011.

24. GRAFIKOA.

**ETORKIZUNEAN, USTE DUZU KLIMA ALDAKETAK ERAGINA IZANGO DUELA ZURE EGUNEROKO BIZIMODUAN...?**



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
ERAGIN HANDIA	15	11	18	14	16	15	19	19	15	9
ERAGIN NAHIKOA	42	37	44	43	42	43	43	47	45	31
ERAGIN TXIKIA	28	26	27	29	28	27	24	24	27	36
ERAGINIK EZ	10	20	7	11	10	10	9	7	9	18
ED/EE	4	6	5	3	4	5	4	3	5	6

Iturria: Ihobe 2008, 2011.

**LURRALDE-ALDERDIAK**

- Gipuzkoan handiagoa da Klima Aldaketa benetan gertatzen ari dela uste duten herritarren ehunekoak. Bizkaian, berriz, baieztapen horrekin dagoen desadostasun maila beste bi lurraldeetan baino handiagoa da.
- 20.000 biztanletik beherako udalerrietan ere handiagoa da baieztapen horrekin ados ez daudenen kolektiboa (herritarren % 29k adostasun txikia du edo ez dago batere ados).
- Klima Aldaketari buruzko kezka mailak behera egiten du Araban (% 52 «oso» edo «nahiko» kezkatuta dago) eta gora egiten du 20.000 biztanletik beherako udalerrietan (% 77 «oso» edo «nahiko» kezkatuta dago).
- Arabako biztanleak dira gutxien kezkatzen direnak Klima Aldaketak beren eguneroko bizimoduan izan dezakeen eraginagatik (% 46 gutxi kezkatzen da edo ez da batere

kezkatzen). Udalerrien dimentsioren ikuspuntutik begiratuta, 20.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnak dira gehien kezkatzen direnak. Ingurune horietan, gutxi kezkatzen direnak edo batere kezkatzen ez direnak biztanleriaren % 29 soilik dira.

**ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK**


- Ikasketa maila zenbat eta handiagoa den, orduan eta adostasun handiagoa dago Klima Aldaketa benetakoa izateaz.
- Klima Aldaketari buruzko kezka maila txikiagoa da gazteenen eta nagusien artean.
- Maila partikularrean, pertsona nagusiak eta ikasketa maila txikiagoa duten pertsonak dira gutxien kezkatzen direnak Klima Aldaketak beren eguneroko bizimoduan izan dezakeen eraginagatik.

## 2. KLIMA ALDAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

Gai eztabaidatsua izan arren, EAEko hamar herritarretatik seik uste dute informazio nahikoa dutela Klima Aldaketaren kausa eta ondorioez. EBn 2010ean egindako Ekobarometroak erakusten duenez, euskal gizarteak europar herritarrek duten informazio berdintsua du gai hauen inguruan (EBko kolektiboaren % 56k uste du oso ondo edo nahiko ondo informatuta dagoela).

25. GRAFIKOA.

### USTE DUT BADUDALA INFORMAZIO NAHIKOA KLIMA ALDAKETAREN KAUSA ETA ONDORIOEI BURUZ



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (OSO)	14	8	16	14	14	14	15	15	15	11
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	43	38	43	45	44	42	47	43	45	38
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	31	39	30	30	31	32	27	30	31	35
EZ NAGO BATERE ADOS (BATERE EZ)	9	10	9	8	9	9	9	10	8	10
ED/EZ	3	5	2	2	2	3	1	2	1	6


Iturria: Ihobe 2008, 2011. Special Eurobarometer 313: Europeans' attitudes towards climate change European Commission and the European Parliament 2009.

Klima Aldaketa gelditzeko jardueri buruz euskal gizarteak duen informazio mailari dagokionez, herritarren erdiek uste dute informazio nahikoa dutela, eta beste erdiak desinformatuta sentitzen dira. Kasu horretan ere, 2010eko Ekobarometroak erakusten du europar gizarteak

Klima Aldaketaren aurka borrokatzeko formen inguruan duen informazioa euskal gizarteak duenaren antzekoa dela (kolektiboaren % 52k uste du «oso ondo» edo «nahiko ondo» informatuta dagoela.

26. GRAFIKOA.

**USTE DUT BADUDALA INFORMAZIO NAHIKOA KLIMA ALDAKETAREN AURKA BORROKATZEKO EGIN DAITEZKEEN EKINTZEI BURUZ**



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (OSO)	12	3	13	13	12	11	11	12	13	10
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	39	34	39	41	40	38	39	40	43	33
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	36	47	34	35	36	37	42	36	34	38
EZ NAGO BATERE ADOS (BATERE EZ)	11	10	11	10	10	11	8	11	10	12
ED/EZ	3	6	2	2	2	3	1	1	1	7

Iturria: Ihobe 2008, 2011. Special Eurobarometer 313: Europeans' attitudes towards climate change. European Commission and the European Parliament 2009.

**LURRALDE-ALDERDIAK**

- 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, handiagoa da Klima Aldaketaren kausa eta ondorioei buruz ondo informatuta dagoela dioten kolektiboaren ehunekoa (% 64 nahiko edo guztiz ados dago).
- Klima Aldaketa gelditzeko ekintzei buruzko informazio mailari dagokionez, arabarrak dira informazio gutxien dutela diotenak (% 57 gutxi informatuta sentitzen da, edo ez da batere informatuta sentitzen).

**ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK**

- Pertsona gazteenak eta ikasketa maila handiena dutenak dira –euren esanetan– Klima Aldaketaren kausa eta ondorioei buruzko informazio maila handiena dutenak.

### 3. KLIMA ALDAKETAREN KAUSA NAGUSIAK


Euskal gizartearen iritziz, Klima Aldaketaren eragile nagusiak hauexek dira, ordena honetan: industriek eragindako kutsadura; oihanen suntsipena eta zuhaitzen mozketa; eta auto, kamioi eta autobusen igorpenak. Herritarren erdiek baino gehiagok aipatu dituzte aukera horiek.

Herritarrek 2008an zuten iritziarekin alderatuta, industriek eragindako kutsadurak pisua galdu du (ehuneko zazpi puntu) eta 10 puntuz igo dira oihanen suntsipena eta zuhaitzen mozketa.

Etxebizitzetako energia-kontsumoa eta kausa naturalak Klima Aldaketaren eragile nagusi bezala aipatzen dituztenak herritarren % 5 baino apur bat gehiago dira.

27. GRAFIKOA.

#### ONDOREN AIPATUKO DITUDANEN ARTEAN, ZEIN DIRA, ZURE USTEZ, KLIMA ALDAKETAREN BI KAUSA NAGUSIAK...?



Iturria: Ilobe 2008, 2011.

28. GRAFIKOA.

#### ONDOREN AIPATUKO DITUDANEN ARTEAN, ZEIN DIRA, ZURE USTEZ, KLIMA ALDAKETAREN BI KAUSA NAGUSIAK...?

% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
AUTO, KAMIOI ETA AUTOBUSEN IGORPENAK	53	36	53	59	54	52	56	50	51	57
INDUSTRIEK ERAGINDAKO KUTSADURA	64	56	64	66	64	63	64	69	62	57
OIHANEN SUNTSIPENA, ZUHAITZEN MOZKETA, ETA ABAR	54	51	57	50	54	54	45	57	57	47
ETXEBIZITZETAKO ENERGIA-KONTSUMOA	6	5	6	5	5	6	9	6	6	4
KAUSA NATURALAK	6	4	6	7	6	6	7	6	6	6
BESTEREN BAT	3	4	3	3	3	3	2	2	4	3

Iturria: Ilobe 2011.


Kasu honetan, aztertutako biztanleria-estrategiek ez dute desberdintasun nabarmenik adierazten, deskribatutako joera orokorrari dagokionez. Dena dela, azpimarratzekoa da udalerrri txikietan badela joera handiagoa Klima Aldaketaren erantzukizun nagusia herritarrengandik gertu dauden jokabide eta elementu konkretuei egozteko (industria eta trafikoa); udalerrri handiagoetan bizi direnek, berriz, eguneroko bizimodutik urrunago dauden kausak nabarmentzen dituzte (oihanen suntsipena eta zuhaitzen mozketa).

#### 4. KLIMA ALDAKETAREKIN ZERIKUSIA DUEN JOKABIDE PERTSONALARI BURUZKO PERTZEPZIOAK

Klima Aldaketaren eragile nagusiak zeinahi direlarik ere, hamar pertsonatik zazpi uste dute ekintza pertsonalak lagungarriak izan daitezkeela Klima Aldaketaren efektuak moteltzeko. Pertzepzio hori oso positiboa da, esanguratsua izateaz gain, eta ondo islatzen ditu herritarrak kontzientziatzeko xedez hainbat eremutan egiten ari diren ahaleginak. Datu azpimarragarri gisa, aipatzekoa da 2008 urtean herritarren % 35ek soilik uste zuela bere ekintzak lagungarriak izan zitezkeela Klima Aldaketa moteltzeko (% 29k nahiko lagungarriak eta % 6k oso lagungarriak).

29. GRAFIKOA.

##### NIRE USTEZ, ALOR PERTSONALEAN, NIRE EKINTZEN BIDEZ LAGUNTZA EMAN DEZAKET KLIMA ALDAKETAREN ONDORIOAK MURRIZTEKO




% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (OSO)	23	16	27	19	23	23	22	24	25	19
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	46	46	45	49	44	48	46	47	47	45
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	23	27	22	23	24	21	25	23	23	21
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	5	5	4	7	6	4	6	5	4	8
ED/EZ	3	6	2	2	2	3	1	2	1	7

Iturria: Ilobe 2008, 2011.



Ba al dago loturarik Klima Aldaketa murrizteko jardueren eta prestigio sozialaren artean? Printzipioz, ez. Hori uste du euskal gizartearen erdiak baino gehiagok (% 54); dena dela, azpimarratzekoa da EAeko hamar pertsonatik lauk uste dutela badela horrelako loturarik.

30. GRAFIKOA.  
**NIRE USTEZ, KLIMA ALDAKETAREN ONDORIOAK MURRIZTEN  
LAGUTZEN DUTEN EKINTZAK GAUZATZEAK  
PRESTIGIO SOZIALA EMATEN DU**



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (OSO)	11	10	12	9	12	10	13	11	11	10
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	27	30	29	23	28	26	31	28	26	25
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	30	34	29	31	31	29	28	31	32	28
EZ NAGO BATERE ADOS (BATERE EZ)	24	16	24	27	23	25	23	23	25	25
ED/EZ	8	11	7	9	6	9	5	6	7	13

Iturria: Ihobe 2011.

**LURRALDE-ALDERDIAK**

— 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako biztanleak dira neurri handiengan uste dutenak Klima Aldaketa murrizteko ekintzak prestigio sozialarekin lotuta daudela (% 43 guztiz edo nahiko ados dago). 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, berriz, proportzio hori % 37 da.

**ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK**


— Ikasketa maila da Klima Aldaketa murrizteko ekarpen pertsonala gehien baldintzatzen duten faktoreetako bat. Oro har, kontzientziario maila handiagoa da prestakuntza maila handiagoa den neurrian.

## 5. KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO BORROKARI LAGUNTZEKO ONARTZEN DIREN SAKRIFIZIOAK

Beste datu interesgarri eta positibo bat da hamar pertsonatetik zortzi prest egongo liratekeela –neurri handiagoan edo txikiagoan– beren eguneroko ohiturak aldatzeko, Klima Aldaketaren ondorioak murrizten laguntzeko. Ekimen horren aurkako jarrera garbia duten pertsonak, berriz, % 4 baino ez dira. Oposizio handiena herritar nagusien artean aurkitzen dugu.

Alderdi horri dagokionez, azpimarratzekoa da Europako azken Eurobarometroak –2010– erakusten duen datua, alegia: hamar pertsonatetik seik diote neurri pertsonalak hartu dituztela Klima Aldaketaren aurka borrokatzeko; beren jokabidea inola ere aldatu ez dutenak, berriz, herritarren herenak dira.

31. GRAFIKOA.  
PREST EGONGO NITZATEKE NIRE EGUNEROKO OHITURAK ALDATZEKO,  
KLIMA ALDAKETAREN ONDORIOAK MURRIZTEN LAGUNTZEKO



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (OSO)	27	26	29	25	27	27	26	30	30	20
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	52	51	50	57	52	53	50	53	57	47
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	14	14	15	10	14	13	19	12	9	19
EZ NAGO BATERE ADOS (BATERE EZ)	4	3	4	5	5	4	4	3	3	8
ED/EZ	3	6	2	3	2	3	1	2	2	6

Iturria: Ihobe 2011.

### LURRALDE-ALDERDIAK

— 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako herritarrek prestasun handiagoa dute beren eguneroko ohiturak aldatzeko, Klima Aldaketaren ondorioak murrizten laguntzeko (% 85 gutziz ados edo nahiko ados dago). 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, ehuneko hori % 78ra jaisten da.

### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK


— 45 eta 64 urte bitarteko herritarrek (% 86) eta goi mailako ikasketak dituztenek prestasun handiagoa dute beren eguneroko jokabidea aldatzeko, horren bidez Klima Aldaketaren aurka borrokatzeko.

## 6. HERRI ADMINISTRAZIOAREN JOKABIDE EREDUGARRIA KLIMA ALDAKETAREN ALORREAN

Gainera, herritarrei galdetu zaie zer iritzi duten Herri Administrazioaren jokabideaz, Klima Aldaketaren aurkako borrokari dagokionez. Bada, % 60k uste du administrazioen jarduna ez dela lagungarria herritarrek Klima Aldaketaren aurako borrokan inplikatzeko, hau da, ez ditu horretan parte hartzera bultzatzen.

32. GRAFIKOA.

### ADMINISTRAZIOEN ALDETIK IKUSTEN DUDAN JOKABIDEAK BULTZATZEN NAU KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO BORROKAN INPLIKATZERA



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
GUZTIZ ADOS (OSO)	7	4	8	6	7	6	8	7	6	7
NAHIKO ADOS (NAHIKOA)	27	29	31	20	27	28	29	26	28	28
EZ NAGO OSO ADOS (GUTXI)	37	42	34	40	37	37	38	38	39	31
EZ NAGO BATERE ADOS (BATERE EZ)	23	16	22	28	25	21	22	25	23	22
ED/EZ	6	9	6	6	5	8	4	4	4	13

Iturria: Ihobe 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

- Gipuzkoa da desadostasun handiena erakusten duena Administrazioak abiatutako ekintzen aurrean (% 68 ez dago oso ados edo ez dago batere ados).

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

- Klase soziala jaisten den neurrian, orduan eta gaitzespen handiagoa du herri administrazioek eskaintzen duten adibideak (goi mailako klaseak, % 54; erdiko klaseak, % 58; eta langile-klaseak, % 65).


## 7. EUSKAL GIZARTEAREN KEZKA ETA JARDUERA MAILA KLIMA ALDAKETAREN ALORREAN

Kapitulu hau bukatzeko, eta klima aldaketari buruzko kezka maila eta ekarpen maila aztertuz, hiru kolektibo mota bereizi ditzakegu: pertsona kezkatuak eta aktiboak; kezkatuak eta ez-aktiboak; eta kezkatuta ez daudenak.

Kalkula daiteke euskal herritarren % 48 pertsona aktiboan taldean dagoela, Klima Aldaketari dagokionez. Kolektibo horretako pertsonak kezka maila handia dute eta, aldi berean, uste dute beren jarduera lagungarria izan daitekeela Klima Aldaketa murrizteko. Bigarren taldea pertsona pasiboena da, herritarren % 14ekin. Kolektibo horretako pertsonak oso kezkatuta daude Klima Aldaketagatik, baina uste dute beren jarduera pertsonalak ez duela balio Klima Aldaketaren ondorioak murrizteko. Azken taldea, beriz, kezkatuta ez dauden pertsonen osatutakoa da, hau da, Klima Aldaketagatik gutxi kezkatzen diren pertsonen osatutakoa. Kasu honetan, kolektibo hori herritarren % 35 da.

### 33. GRAFIKOA.

#### EUSKAL GIZARTEAREN TIPOLOGIA, KLIMA ALDAKETARI BURUZKO KEZKA



Iturria: Ihobe 2011.

% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
AKTIBOAK	48	36	52	47	47	49	44	49	53	41
EZ-AKTIBOAK	14	14	14	16	16	13	14	15	15	13
KEZKATUTA EZ DAUDENAK	35	42	32	35	35	34	41	34	30	40
ED/EE	3	7	2	3	2	4	1	2	2	7

Iturria: Ihobe 2011.


#### LURRALDE-ALDERDIAK

- Bizkaia da Klima Aldaketaren aurrean aktiboak diren pertsonen ehuneko handiena kontzentratzen duen lurraldea (% 52). Gipuzkoan, beste lurralde historikoen aldean, nolabait igotzen da pasiboan kolektiboak duen pisua (% 16); eta Araba nabarmentzen da Klima Aldaketagatik kezkatzen ez diren pertsonen ehuneko handiena izateagatik (% 42).

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

- Pertsona aktiboan taldean, 45 eta 64 urte bitarteko pertsonen taldea nabarmentzen da (% 53).
- Pertsona pasiboan taldean, handiagoa da gizonen presentzia (% 16).
- Bukatzeko, Klima Aldaketagatik kezkatzen ez diren pertsonen kolektiboan, pertsona gazteenen (% 41) eta nagusien (% 40) kolektiboa nabarmentzen da.

34. GRAFIKOA.  
**KLIMA ALDAKETARI BURUZKO PERTZEPZIOEN LABURPENA**



Iturria: Ihobe 2011.



## 6. BIODIBERTSITATEA

Azken urteotan, biodibertsitate kontzeptuarekin batera bizitzera ohitu gara, poliki-poliki. Modu oso orokorrean, Biodibertsitateak hizpide duena da gure habitat naturaleko ekosistemetan elkarreraginean aritzen diren organismo eta espezieen multzoa. Biodibertsitatearen balio nagusi eta funtsezkoena da prozesu historiko natural baten emaitza dela eta ezinbestekoa dela geure biziraupena bermatzeko. Hori da biodibertsitatea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko arrazoi nagusia.

Hala eta guztiz ere, noraino ezagutzen dugu «Biodibertsitate» terminoa? Zerekin lotzen dugu? Mehatxupean ote dago gure ekosistema? Nondik datozen mehatxuak? Ba al dakigu zer egiten den alor instituzionalean Biodibertsitatea babesteko? Kapitulu honetan, horrelako galderari erantzuten saiatuko gara.






## 1. 'BIODIBERTSITATE' TERMINOAREN EZAGUTZA MAILA

### 1.1. 'Biodibertsitate' terminoa ezagutzea

Lau pertsonatik hiruk entzun dute «Biodibertsitate» kontzeptuari buruz hitz egiten, baina herritarren % 29k soilik dio beraren esanahia ezagutzen duela.

35. GRAFIKOA.  
INOIZ ENTZUN AL DUZU 'BIODIBERTSITATE' TERMINOA?



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
ENTZUN DUT ETA BADAKIT ZER ESAN NAHI DUEN	29	32	28	30	35	24	30	37	31	14
ENTZUN DUT BAINA EZ DAKIT ZER ESAN NAHI DUEN	44	37	42	50	42	46	47	43	46	42
EZ DUT INOIZ ERE ENTZUN	27	31	30	20	23	30	23	20	22	44

Iturria: Ihobe 2008, 2011. Flash Eurobarometer 290: Attitudes of Europeans towards the issue of biodiversity. Directorate General Environment. European Commission 2010.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

- Biztanle gutxiagoko udalerrietan, apur bat txikiagoa da «Biodibertsitate» terminoaren inguruan dagoen ezagutza. Herritarren % 23k badaki zer esan nahi duen. 20.000 biztanletik gorako udalerrien kasuan, herritarren % 31k ezagutzen du terminoaren esanahia.

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK


- Beren esanetan, terminoaren esanahia ondoen ezagutzen duten biztanleria-segmentuak hauexek dira: gizonak, % 35arekin; 25 eta 44 urte bitarteko pertsonak, % 37rekin; goi mailako ikasketak dituztenak, % 62rekin; eta lan egiten dutenak, % 39rekin.
- «Biodibertsitate» terminoa gutxien ezagutzen duten segmentuak, berriz, hauexek dira: adineko pertsonak, etxekoandreak eta ikasketa maila txikiagoa dutenak.

## 1.2. 'Biodibertsitate galera' terminoaren esanahia

Lehen aipatu dugun bezala, biodibertsitate terminoaren esanahia oso zabala da. Beraren esanahia ezagutzen dutela diotenen artean, ikertu nahi izan dugu zerekin lotzen den «Biodibertsitate galera» terminoa. Erantzun nagusiak hauexek izan dira: herritarren herenek baino apur gehiagok uste dute habitat naturalaren narriadurarekin eta espezieen kopurua murriztearekin duela zerikusia. % 29k, berriz, animalia eta landare jakin batzuen desagertzearekin eta jaitsierarekin lotzen du terminoa. Azkenik, % 14k animalia eta landare jakin batzuk desagertzeko arriskuarekin lotzen du.

36. GRAFIKOA.

### ESAN DIEZADAKEZU ZER ESAN NAHI DU ZURETZAT 'BIODIBERTSITATE GALERA'



**Iturria:** Ihobe 2008, 2011. Flash Eurobarometer 290: Attitudes of Europeans towards the issue of biodiversity. Directorate General Environment. European Commission 2010.

% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
HABITAT NATURALAREN NARRIADURA ETA, ORO HAR, BARIETATE GUTXIAGO	35	13	36	43	31	40	26	34	37	40
OIHANEN	5	5	2	8	5	5	5	6	3	7
GESAGERPENA/MURRIZKETA	29	23	36	19	31	25	38	28	33	11
ANIMALIA ETA LANDARE JAKIN BATZUK DESAGERTZEN ARI DIRA EDO DESAGERTUKO DIRA	14	23	10	16	16	11	17	17	9	14
ANIMALIA ETA LANDARE JAKIN BATZUK DESAGERTZEKO ARRISKUAN DAUDE EDO EGONGO DIRA	9	25	7	5	8	11	9	8	11	10
ONDARE NATURALAREN EDO ZURE HERRIALDEAREKIN ZERIKUSIA DUEN INGURUNE NATURALAREN GALERA	1	1	1	1	1	0	2	1	1	1
ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEAK	1	4	0	1	1	2	2	1	1	5
HABITAT NATURALEAN FINKATZEA	3	2	3	2	2	4	0	2	3	5
KLIMA ALDAKETA	1	1	1	0	1	0	0	1	0	1
ARAZOAK AIRE ETA URAREN	1	0	0	4	2	1	0	1	2	2
GARBITASUNAREKIN/CO <sub>2</sub> IGORPENAK	2	4	2	1	3	1	1	2	2	4
ARAZOAK EKONOMIARENTZAT/ ABERASTASUN MATERIALA GALETZEA										
BESTEREN BAT										
ED/EE										

Iturria: Ithobe 2008, 2011. Flash Eurobarometer 290: Attitudes of Europeans towards the issue of biodiversity. Directorate General Environment. European Commission 2010.

Termino honen esanahiari buruz jasotako erantzunek europar herritarren joera berdinari eusten diote. Hala, azken Eurobarometroaren arabera, «Biodibertsitate galera» terminoak honekin lotzen da:

- Animalia eta landare jakin batzuen desagertzea (% 43).
- Animalia eta landare jakin batzuk desagertzeko arriskua (% 19).
- Habitat naturalaren narriadura eta, oro har, bariedade gutxiago (% 18).

## 2. 'BIODIBERTSITATEARI' MEHATXU EGITEN DIOTEN GAIEN INGURUKO PERTZEPZIOAK


Modu osagarrian aztertu dugu zein diren, herritarren ustez, Biodibertsitateak dituen mehatxu nagusiak.

Herritarren % 30entzat, mehatxu nagusia gizakiok eragindako hondamendiak dira (petrolio-isuriak, istripu industrialak, eta abar); % 28ren ustez, mehatxu nagusiak nekazaritza intentsiboa, baso-soiltzea eta gehiegizko arrantza-ustiapena dira, eta % 15entzat airearen edo uraren kutsadura.

Orain ere, euskal gizarteak eta europar gizarteak sintonia dute beren iritzietan, zeren hiru erantzun horiek baitira –ordena desberdina izan arren– erantzunen % 72 kontzentratzen dutenak.

GRAFIKOA 37.

**ZURE USTEZ, ONDORENGO GAIEN ARTEAN ZEIN DA MEHATXU HANDIENA BIODIBERTSITATEARENZAT?**



Iturria: Ihobe 2008, 2011. Flash Eurobarometer 290: Attitudes of Europeans towards the issue of biodiversity. Directorate General Environment. European Commission 2010.

### 3. BIODIBERTSITATEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ERAKUNDE ETA/EDO ENTITATEEN INGURUKO EZAGUTZA MAILA (TOKIKOAK ETA NAZIOARTEKOAK)

Kapitulua bukatzeko, Biodibertsitatea babesten duten erakunde eta/edo entitate nagusien inguruan gizarteak duen ezagutza maila aztertu dugu.

Nazioartean, «Natura 2000 Sarea» aipatzen da. Natura babesteko xedez Europar Batasunak abiatu duen tresna nagusia da. Beraren helburua da mehatxu handiena pairatzen duten europar espezie eta habitaten biziraupena bermatzea, epe luzera, giza jardueren inpaktu kaltegarriak sortzen duen biodibertsitate galera gelditzen laguntzeko.

Tokiko mailan, erreferentziazko entitatea Euskadiko Biodibertsitate Zentroa da; beraren helburuak dira dibertsitate biologikoa eta natura hedatzea eta haien balio erakustea, Biodibertsitateak gizakiontzat ekartzen dituen onurak ezagutzera emateaz gain.


#### 3.1. 'Natura 2000 Sarea' ezagutzea

Natura 2000 Sareari dagokionez, lanean 18 urte baino gehiago eraman arren, euskal gizarteak duen ezagutza maila oso txikia da. Hamar pertsonatik batek soilik entzun du berari buruz hitz egiten. Europari dagozkion emaitzak ez dira askoz ere hobeak. Sare horretaz hitz egiten entzun duten herritarrak biztanleriaren % 18 dira, baina % 6k soilik dio badakiela zer den.

Euskal gizartearen ezagutza maila zertxobait handiagoa da gizonen eta ikasketa maila altuko pertsonen kasuan.

38. GRAFIKOA.

**NATURA 2000 SAREARI BURUZ HITZ EGITEN ENTZUN DUZU?**



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
BAI	10	10	9	12	13	7	11	11	12	7
EZ	87	87	89	84	85	90	88	86	86	90
ED/EE	3	3	2	4	2	3	2	3	2	4

Iturria: Ihobe 2008, 2011. Flash Eurobarometer 290: Attitudes of Europeans towards the issue of biodiversity. Directorate General Environment. European Commission 2010.


**3.2. 'Euskadiko Biodibertsitate Zentroa' ezagutzea**

Datu adoregarri bezala, aipatzekoa da hiru pertsonatetik batek Euskadiko Biodibertsitate Zentroa ezagutzen duela. Nahiz eta zifra hori «ez-nahikotzat» jo daitekeen, badira azpimarratu daitezkeen alderdi batzuk:

- Berriki sortutako zentro bat da, zeren 2008ko ekainean ireki baitzen.
- Bizkaian kokatuta egon arren, ez dago desberdintasun handirik Arabako edo Gipuzkoako biztanleriak duen ezagutza mailarekin.
- Barneratze-maila nahiko homogeneoa da biztanleria-estratu guztietan. Adineko pertsonen eta ikasketa maila txikiena dutenak dira zifra txikiak dituzten kolektiboak.

39. GRAFIKOA.

**EUSKADIKO BIODIBERTSIATE ZENTROARI BURUZ HITZ EGITEN ENTZUN DUZU?**




% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
BAI	31	30	31	30	30	31	28	32	35	23
EZ	67	66	68	66	68	67	69	66	63	74
ED/EE	2	4	1	4	2	2	3	2	2	3

Iturria: Ihobe 2011.

## 7. INGURUMENA TOKIKO ESPARRUAN

Azpimarratu beharrekoak dira ingurumena babesteko xedez azken urteotan toki mailan egiten ari diren ahaleginak. Gai horri dagokionez, bi alderdi konkretu ikertu nahi izan ditugu. Alde batetik, identifikatzea zein diren herritarrei beren udalerrietan eragozpen handienak sortzen dizkieten ingurumen-alderdiak; eta, bigarrenik, ikertzea norainoko ezagutza duen euskal gizarteak ingurumena babesteko xedez indarrean dauden bi tokiko programa nagusiez: «Tokiko Agenda 21» eta «Eskolako Agenda 21».



## 1. TOKI MAILAKO INGURUMEN ARAZOAK


Euskal udalerrien dibertsitatearen eraginez, ez dugu gehiengo garbirik aurkitzen ingurumen-eragozpen nagusia zein den galdetzen dugunean. Gehien aipatzen diren bi kezka hauexek dira: zarata (% 31) eta zabor eta hondakinak (% 21).

Gainerako arazoak bigarren mailan agertzen dira: airearen kutsadura (% 17); berdegune-falta (% 11); hiriko paisaian eta paisaia naturalean dagoen inpaktua (% 8); eta uraren kutsadura (% 5).

Bukatzeko, datu azpimarragarri bezala, aipatzekoa da euskal gizartearen % 4k ez duela inolako ingurumen-arazorik identifikatzen bere udalerrian, alegia, eragozpenak sortzen dituen ingurumen-arazorik.

### 40. GRAFIKOA.

#### ONDORRENGO INGURUMEN ARAZOEN ARTEAN, ZEIN DA ERAGOZPEN GEHIEN SORTZEN DIZKIZUNA ZURE UDALERRIAN?



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
ZABORRA/HONDAKINAK	21	33	18	20	19	22	27	20	19	21
ZARATA	31	26	32	32	32	30	24	28	35	32
AIREAREN KUTSADURA	17	12	20	15	17	18	14	20	17	14
URAREN KUTSADURA	5	13	3	5	5	5	8	6	4	4
HIRIKO PAISAIA/PAISAIA NATURELEAN DAGOEN INPAKTUA	8	6	7	10	9	7	10	9	7	6
BERDEGUNE-FALTA	11	3	12	15	12	10	11	12	11	11
BESTEREN BAT	1	1	1	0	0	1	1	1	1	1
ED/EE	3	3	3	4	3	3	3	2	3	5
BAT ERE EZ	4	5	5	1	4	4	2	2	3	7

Iturria: Ihobe 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

— Lurralde historikoen arabera egindako azterketa zehatzago batek erakusten duenez, zarata da ingurumen-arazo gogaikarriena Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarrentzat. Araban, berriz, eragozpen nagusia zaborra eta hondakinak dira (% 31). Lurralde horretan, gainera, azpimarratzekoa da biztanleen % 13rentzat uraren kutsadura dela eragozpen nagusia; izan ere, ehuneko horrek EAEko tasa orokorra bikoizten du alde handiz. Beste alde batetik,

airearen kutsadura bigarren arazo nagusi bezala agertzen da Bizkaian (% 20), zabor eta hondakinen aurretik.

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

— Aztertutako biztanleria-estratuek ez dute desberdintasun esanguratsurik adierazten euskal biztanleriaren joera orokorreakin.

## 2. TOKI MAILAKO INGURUMEN PROGRAMEI BURUZKO EZAGUTZA

Aipatu dugun bezala, toki mailan gehien ezagutzen diren ingurumen-programak «Tokiko Agenda 21» eta «Eskolako Agenda 21» dira.

Tokiko Agenda 21 udalerraren proiektu bat da, garapen jasangarria bultzatzeko xedez Nazio Batuen Erakundeak (NBE) sustatzen duen Agenda 21 programaren baitan sartuta dagoena. Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadiko Ingurumena Babesteari buruzko 3/98 Lege Orokorra onartu zenez geroztik, zenbait estrategia garatu dira Agenda 21en prozesuak euskal udalerrietan bultzatzeko. Epe labur-ertain-luzerako plan zehatz bat da, Toki Entitateek txertatu eta garatu behar dituzten hainbat ekintza biltzen dituena. Beraren oinarria da udalerriko ingurumen-politikak eta politika eta ekonomiko eta sozialak integratzea, Plan Estruktural edo Tokiko Ekintza Plan bat prestatzearen eta aplikatzearen bitartez.


Eskolako Agenda 21i dagokionez, 2003-2004 ikasturtean abiatutako programa hori hezkuntza-komunitateak Herri Administrazioarekin hartzen duen konpromiso bat da, ikastetxeko eta beraren inguruneko ingurumen-kalitatearen eta jasangarritasunaren alde lan egiteko. Adingabeak eta gazteak jasangarritasunerako hezteak funtsezko garrantzia du gizakien eta ingurumenaren arteko harremanak etorkizunean hobetzeko.

### 2.1. 'Tokiko Agenda 21' programari buruzko ezagutza maila

Euskal udalerrri gehienetan zenbait urtez funtzionatzen egon den programa bat izan arren, herritarren artean ez da oso ezaguna. Euskal biztanleriaren %14k nahiko ondo edo oso ondo ezagutzen

41. GRAFIKOA.

#### ZER NEURRITAN ENTZUN DUZU «TOKIKO AGENDA 21» PROGRAMAZ HITZ EGITEN?



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
ASKO	4	4	4	4	4	4	11	4	4	1
NAHIKO	10	9	9	11	10	10	19	11	10	3
GUTXI	15	14	16	15	16	14	19	17	18	8
EZER EZ	71	73	70	70	70	72	51	68	68	89

Iturria: Ihobe 2011.



du terminoa, baina gainerako herritarrek (% 86) gutxi ezagutzen dute programa, edo ez dute batere ezagutzen.

Tokiko Agenda 21 ezagutzen duten pertsonei galdetu zaie zein diren programaren eragin-eremuak. Emaidza hauxe izan da:


- % 46k ingurumen-kalitatearekin lotzen du Tokiko Agenda 21 (hondakinak, ura, airea, eta abar).  
% 32k uste du beraren jarduera-eremua ingurumen-hezkuntza eta herritarren parte-hartzea direla. Eta % 22k ingurune naturalarekin lotzen du (biodibertsitatea, basoak, fauna, eta abar).
- Herritarren talde txiki batek uste du Tokiko Agenda 21en eragin-eremuek beste alor batzuk ere hartzen dituztela barne, hala nola: mugikortasunarekin eta garraiabideekin zerikusia duten lurralde-alderdiak; lurzoruaren erabilera eta hiri-esparrua (% 16) eta garapen ekonomiko eta soziala –lan merkatua, etxebizitza, gizarte ongizatea, eta abar– (% 1).
- Bukatzeko, herritarren % 16 ez da gai izan ezein jarduera-eremu identifikatzeko.

## 2.2.- 'Eskolako Agenda 21' programari buruzko ezagutza maila

Datuek erakusten dutenez, Eskolako Agenda 21 programari buruz dagoen ezagutza maila bat dator Tokiko Agenda 21i buruz lehen azaldu dugunarekin. Programa ezagutzen duten herritarrek euskal biztanleriaren %14 dira, lehenengo kasuan bezala.


42. GRAFIKOA.

### BA AL DAKIZU ZEIN DIREN 'TOKIKO AGENDA 21' PROGRAMAREN ERAGIN EREMUAK?



43. GRAFIKOA.

**ZER NEURRITAN ENTZUN DUZU 'ESKOLAKO AGENDA 21' PROGRAMAZ HITZ EGITEN?**



% EHUNENKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
ASKO	5	4	6	5	4	6	19	5	4	1
NAHIKO	9	10	8	9	9	9	22	10	8	1
GUTXI	11	11	12	9	11	11	13	12	13	5
EZER EZ	75	75	74	77	76	75	46	73	75	93

Iturria: Ihobe 2011.

**LURRALDE-ALDERDIAK**

- Lurraldeen ikuspuntutik, ez dago desberdintasun handirik Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programei buruzko ezagutza mailan.

**ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK**

- Tokiko Agenda 21i buruzko ezagutza mailan eragin handiena duten faktoreak adina eta ikasketa maila dira. Adinari dagokionez, 25 urtetik beherako herritarrak dira kolektibo informatuena (hamar gaztetatik lauk programa ezagutzen dute);

65 urtetik gorako kolektiboaren kasuan, aldiz, % 3k soilik entzun du programari buruz hitz egiten.

- Antzeko zerbait gertatzen da ikasketa mailarekin; goi mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, programa ezagutzen ez dutenen proportzioa % 69 da; lehen mailako ikasketak gainditu ez dituztenen kasuan, berriz, zifra % 90 baino handiagoa da.
- Eskolako Agenda 21 gehien ezagutzen duten herritarrak pertsona gazteenak (% 41) eta goi mailako ikasketak dituztenak (% 25) dira. Programa horiek gutxien ezagutzen dituztenak (% 1), berriz, pertsona nagusienak eta ikasketa maila txikienekoak dira.



# 8. INCURUMEN POLITIKAK

Gure inguruneko ingurumen-egoerari buruzko diagnosis egin ondoren, azken kapitulu honetan funtseko gai bat jorratuko dugu, hots, ingurumen-politikak. Kapituluak lau atal ditu: epe labur eta ertainera lortu nahi diren helburuak identifikatzea; ingurumen-politiken garrantzia; erabaki politiko eta legegilearen mailen azterketa; eta, azkenik, EAEk ingurumenaren alorrean gauzatzen duen jarduera orokorraren ebaluaketa.

Komenigarria da aipatzea aztertzen honen emaitzak oraingo egoera ekonomikoaren testuinguruan interpretatu behar direla. Txostenean zehaztu dugun bezala, oraingo krisi-egoerak zuzeneko eragina du kapitulu honetan jorratzen diren gai batzuen inguruan herritarrek duen pertzepzioan, eta, beraz, pertzepzio horiek eragin esanguratsua izan dute jaso ditugun emaitzetan.

# 1. INGURUMENAREN LEKUA EAEn HELBURUEN ARTEAN


## 1.1. EAEn oraingo helburuak ingurumenaren alorrean

EAEn helburu nagusia aberastasuna sortzea eta enplegua areagotzea izan behar da. Hori uste dute hamar pertsonatik seik. Gaur egun, biztanleriaren % 5ek soilik ematen die lehentasuna ingurumenaren babesari eta kontserbazioari; horrek laugarren postuan jartzen du aukera hori, lehentasuneko helburuetatik oso urrun.

Garbi dago oraingo krisi ekonomikoak aldatu egin dituela euskal herritarren lehentasunak, haien apustu nagusia aberastasuna eta enplegua sortzea baita; horren truke, gainerako erantzunek (pobrezia murriztea; gatazka politiko eta sozialaren maila murriztea; ingurumenaren babesa eta kontserbazioa; eta biztanleriaren osasuna hobetzea) pisuaren erdia baino gehiago galdu dute 2008 urtearen aldean.

### 44. GRAFIKOA.

#### EAEREN ORAINGO HELBURU GARRANTZITSUENAK



#### LURRALDE-ALDERDIAK

— Udalerri handietan (>20.000 biztanle) garrantzi handiagoa hartzen dute aberastasunaren sorrerak eta enpleguaren hazkundeak, herritarren % 64k aipatzen baititu helburu horiek; 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, berriz, helburu horiek lehenesten duten herritarrek gutxiago dira: % 57.

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK


— Aztertutako biztanleria-segmentuetan ez da ia jokabide nabarmenik antzematen. Bakarrik azpimarratu behar da pertsona gazteenak sentsibilizatuago daudela EAEk ingurumenaren alorrean jokatu behar duen rolaekin. 25 urtetik beherako pertsonen % 12k uste du gure autonomia erkidegoaren helburu nagusia ingurumenaren zaintza izan behar dela.

## 1.2. EAEren etorkizuneko helburuak (10 urte barru) ingurumenaren alorrean

Epe ertain/luzera ere, EAEren helburu nagusia aberastasuna eta enplegua sortzea da, orain bezala, herritarren % 27 aukera horren alde azaltzen baita. Bigarren eta hirugarren postuetan, hurrenez hurren, ingurumenaren zaintza eta kontserbazioa (% 22) eta pobrezia murriztea (% 19) datoz.

45. GRAFIKOA.

### EAEren ETORKIZUNeko INGURUMEN HELBURU NAGUSIAK



% EHUNeko BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
ABERASTASUNA SORTZEA ETA ENPLEGUA HAZTEA	27	29	29	23	28	26	28	25	28	28
INGURUMENA BABESTEA ETA KONTSERBATZEA	22	26	20	25	23	22	29	24	24	13
POBREZIA MURRIZTEA	19	12	20	20	19	19	16	18	19	21
GATAZKA POLITIKO ETA SOZIALAREN MAILA MURRIZTEA	8	5	8	9	8	8	7	9	8	8
BIZTANLERIAREN OSASUNA HOBETZEA	8	6	8	8	8	8	8	7	7	9
JENDEARI PARTE-HARTZE HANDI- AGOA EMATEA INSTITUZIOETAN	6	2	5	9	7	6	3	7	7	5
BESTEREN BAT	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
ED/EE	9	18	10	6	8	11	8	9	8	14

Iturria: Ilobe 2001, 2004, 2008, 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

— Gipuzkoan bizi direnek eta, oro har, 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi direnek ingurumenaren zaintza lehenesten dute EAEren datorren hamarkadako gainerako helburuen gainetik.

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

— Gisa berean, 25 urtetik beherako pertsonak dira ingurumenaren babesa gehien lehenesten dutenak datorren hamarkadarako.

Datu horiek 2008an jasotzeko iritziarekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu oraingo egoera ekonomikoak euskal biztanleriaren sektore baten pentsamoldea ere aldatzen duela; izan ere, orain dela hiru urte, ingurumenaren babes eta kontserbazioagatik gehien interresatzen zirenak herritarren % 26 ziren. Orain, berriz, talde hori ehuneko lau murriztu da. Beste alde batetik, 2008tik gehien igo diren helburuak hauexek dira: aberastasuna sortzea eta enplegua haztea (% 4ko hazkundea) eta pobrezia murriztea (% 5eko hazkundea).

## 2. INGURUMEN POLITIKEN GARRANTZIA


### 2.1. Ingurumen-egoerak bizi-kalitatean duen eragina

EAEko hamar biztanletatik ia seik uste dute ingurumen-faktoreek eragin esanguratsua dutela beren bizi-kalitatean (eragin handia, % 17, edo nahikoa, % 42). Dena dela, zifra horiek % 14ko jaitsiera izan dute, gutxi gorabehera, 2008ko Ekobarometro Sozialean lortutako datuen aldean.

Faktore ekonomiko eta sozialek jarraitzen dute izaten euskal herritarren bizi-kalitatean eragin handiena duten faktoreak. Aurreko edizioan bezala, EAEko hamar biztanletatik zortzik uste dute faktore ekonomikoek eragin handia (% 43) edo nahikoa (% 39) dutela beren bizi-kalitatean. Alderdi sozialei dagokienez, ehuneko hori % 65 ingurukoa da (% 23k, eragin handia; % 43k, nahikoa). Horrek esan nahi du alderdi horiek ehuneko 9 puntu inguru galdu dituztela aurreko ediziotik hona.

#### 46. GRAFIKOA.


#### INGURUMENAK ZURE 'BIZI KALITATEAN' DUEN ERAGINA



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
HANDIA	17	16	16	20	16	18	17	18	17	16
NAHIKOA	42	36	43	43	40	43	33	45	45	36
TXIKIA	33	36	35	28	35	31	41	30	32	36
BATERE EZ	7	9	6	7	7	7	8	6	5	10
ED/EE	1	3	1	2	2	1	1	1	1	2

Iturria: Ilobe 2008, 2011.


47. GRAFIKOA.  
FAKTORE EKONOMIKOEK ZURE 'BIZI KALITATEAN' DUTEN ERAGINA



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
HANDIA	43	35	45	43	40	45	32	49	42	38
NAHIKOA	39	47	38	37	39	39	40	35	41	42
TXIKIA	14	12	14	15	16	12	21	12	14	13
BATERE EZ	3	2	3	4	4	3	4	3	2	5
ED/EE	2	4	0	2	1	2	2	1	1	3

Iturria: Ihobe 2008, 2011.

48. GRAFIKOA.  
FAKTORE SOZIALEK ZURE 'BIZI KALITATEAN' DUTEN ERAGINA



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
HANDIA	23	20	24	23	21	25	20	26	22	22
NAHIKOA	43	51	41	43	43	43	43	44	45	38
TXIKIA	25	19	27	24	27	23	30	22	26	26
BATERE EZ	7	5	7	8	7	7	5	5	6	12
ED/EE	2	5	1	3	2	2	2	2	1	3

Iturria: Ihobe 2008, 2011.



Pertzepzio horiek apur bat aldatzen dira aztertutako lurralde-alderdien eta alderdi soziodemografikoen arabera.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

- Lurraldearen ikuspuntutik, Gipuzkoako herritarrek neurri handiagoan hautematen dute ingurumen-alderdiek badutela eragina beren bizi-kalitatean (% 63 Gipuzkoan, % 58 Bizkaian eta % 52 Araban). Araban, nahiz eta alderdi ekonomikoak lehenengo postuetan dauden, gainerako lurraldeetan bezala, bereziki azpimarragarria da alderdi sozialei ematen zaien garrantzia, lurralde horretan gainerakoetan baino gehiago aipatzen baitira.
- Oro har, udalerrri txikietan bizi diren herritarrek neurri handiagoan uste dute beren bizi-kalitatea alderdi ekonomiko eta sozialen eta ingurumen-alderdien eraginpean daudela.

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

- Emakumeen artean eta adin-estratu ertainetan (25 eta 64 urte bitartean), ingurumen-alderdien eragina aipatzen dutenen proportzioa apur bat handiagoa da gainerako kolektiboetan baino. Hamar pertsonatik seik baino gehiagok uste dute ingurumenaren egoerak eragin handia edo nahikoa duela beren bizi-kalitatean.
- Ikasketa maila igotzen den neurrian, orduan eta handiagoa da testuinguru-alderdiek bizi-kalitatean duten eragina (ingurumen-alderdiak, alderdi ekonomiko eta sozialak).
- Hala eta guztiz ere, langileen (beheko edo erdiko estatusa) bizi-kalitatean eragin handiena duen alderdia faktore ekonomiko da (% 86k dio eragin handia edo nahikoa duela).

## 2.2. Ingurumenaren garrantzia erabaki politikoaren prozesuetan

Aurreko atalean aipatutakoa gorabehera, herritarren % 80 inguruk uste du politikarien kolektiboak politika ekonomiko eta sozialei ematen dien garrantzi berdina eman beharko liekeela ingurumen-politikei ere.


Nolanahi ere, lehen aipatu dugun bezala, oraingo krisi-egoerak aldatu egin du pertzepzio hori, zeren beraren presentzia jaitsi baita aurreko edizioaren aldean; izan ere, orduan hamar herritarretatik ia bederatzik uste zuten garrantzi berdina eman behar zitzaiela ingurumen-politikei eta politika ekonomiko eta sozialei. (Ikusi 49. Grafikoa).

Illo horretan sakonduz, bada aipatu behar den beste alderdi bat, alegia, herritarren erdiek baino gehiagok uste duela beharrezkoa dela ingurumen-politikak bultzatzea, lehentasunezkoak direlako eta etorkizuneko aukera ekonomikoa direlako.

Herritarren ia herenek uste dute komenigarria izango litzatekeela ingurumen-politikak orain bezala mantentzea, lehentasuna izaten jarraitzen dutelakoan. Herritarren % 18k soilik uste du politika horiek murriztu beharko liriatekeela, politika sozialetan eta enplegua sustatzeko politikan kontzentratzeko.

#### 49. GRAFIKOA.

#### ZURE IRITZIZ, POLITIKARIEK POLITIKA EKONOMIKO ETA SOZIALEI EMATEN DIETEN GARRANTZI BERTINA EMAN BEHARKO LIOKETE INGURUMENARI ERE?



Iturria: Ilobe 2008, 2011.

% EHUNeko BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
BAI	78	66	77	84	78	78	81	78	81	72
EZ	18	30	18	12	18	17	15	18	16	21
ED/EE	4	4	5	4	4	5	5	3	3	7

Iturria: Ihobe 2008, 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

- Eskuratutako emaitzak asko aldatzen dira lurraldearen arabera. Hala, Gipuzkoaren kasuan, herritarren % 84k uste du ingurumen-politikei ematen zaien garrantzia politika ekonomiko eta sozialei ematen zaienaren adinakoa izan behar dela. Araban, berriz, herritarren % 65 soilik dago ados iritzi horrekin, eta Bizkaia bien artean kokatzen da, % 77rekin.
- 20.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren herritarrek bere egiten dute Gipuzkoako herritarren iritzia. Kasu horretan, biztanleriaren % 88k uste du ingurumen-politikak eta politika


ekonomiko eta sozialak berdindu behar direla; udalerrri handien kasuan, berriz, horren alde daudenak herritarren % 76 dira.

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

- Generoaren eta adinaren arabera desberdintasunak ez dira nabariak; izan ere, azpimarratu behar den datu bakarra da 65 urtetik gorako pertsonak direla iritzi hori gutxien konpartitzen dutenak (% 72).
- Ikasketa maila igotzen den neurrian, orduan eta handiagoa da hiru politika mota horiek (ingurumen-politikak eta politika ekonomiko eta sozialak) berdintzearen alde dauden pertsonen ehunekoa.

#### 50. GRAFIKOA.

#### ZURE IRITZIZ, ORAINGO TESTUINGURUAN, INGURUMEN POLITIKAK...



% EHUNeko BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
MURRIZTU BEHAR DIRA	18	32	17	12	18	17	21	14	16	25
MANTENDU BEHAR DIRA	31	31	36	24	29	33	28	32	30	34
BULTZATU BEHAR DIRA	51	37	47	65	53	49	52	55	54	42

Iturria: Ihobe 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

- Lehen adierazitakoarekin bat etorritik, Arabako biztanleria da gutxien defendatzen duena ingurumen-politikak bultzatzeko beharra (% 37 soilik egongo litzateke politika horiek bultzatzearen alde). Gipuzkoan, berriz, askoz ere aldekoagoa da jarrera (% 65 inguruk uste du bultzatu beharko liratekeela).

— Udalerrri txikiagoetan, neurri handiagoan defendatzen da ingurumen-politiken sustapena (% 57).

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

- Halaber, 65 urtetik gorako pertsonak eta, oro har, lehen mailako ikasketak gainditu ez dituztenek gainerako adin-taldeek baino neurri handiagoan gaitzesten dute ingurumen-politiken sustapena.

### 3. ERABAKI POLITIKOAREN MAILAK ETA INGURUMEN ARAZOAK KONPONTZEKO BULTZATUTAKO LEGEDIA


#### 3.1. Herri Administrazioaren maila egokiena ingurumenari buruzko erabakiak hartzeko

Nahiz eta erkidegoz gaindiko erabakitze mailek gora egin duten azken urteotan, gaur egun, eus- kal herritarren arabera, ingurumenari buruzko erabakiak hartzeko maila administratibo egokiena udal maila da, lehen bezala. Horrela pentsatzen du biztanleriaren % 36k.

Nazioarteko eremua bigarren postuan geratzen da, EAEko biztanleriaren % 28k aipatuta. Horren ostean, eremu autonomikoa –% 13– eta estatala –% 11– datoz.

#### 51. GRAFIKOA .

#### ZURE USTEZ, ONDORENGOEN ARTEAN, ZEIN DA MAILA EGOKIENA INGURUMENAREN BABESARI BURUZKO ERABAKIAK HARTZEKO?



% EHUNENKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
UDAL MAILA	36	33	33	42	34	38	26	36	39	36
AUTONOMIA ERKIDEGOAREN MAILA	13	6	15	12	12	13	12	12	13	14
PROBINTZIA MAILA	4	5	5	4	4	5	7	3	5	5
ESTATU MAILA	11	10	12	9	11	10	10	11	10	10
NAZIOARTEKO MAILA	28	34	27	25	30	25	39	30	26	20
BESTEREN BAT	5	5	5	5	5	5	2	5	6	6
ED/EE	4	8	3	4	3	5	4	3	2	9

Iturria: Ihobe 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

- Aipatu behar da Arabako herritarrek nazioarteko eremua lehenesten dutela maila administratibo hurbilagoen aldean, Gipuzkoako eta Bizkaiko herritarrek ez bezala.
- Halaber, iritzia aldatu egiten da udalerrien dimentsioaren arabera. Neurri txikiagoko udalerrietan, udal maila nagusitzen da modu garbían (biztanleriaren % 57ek aipatu du); hiriburuetan eta dimentsio handiagoko udalerrietan, berriz, indartsuago agertzen

dira eremu estatala eta, batez ere, nazioartekoa (hurrenez hurren, herritarren % 12k eta % 31k aipatu dituzte).

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

- Antzeko zerbait gertatzen da herritar gazteenen kasuan, zeren horien artean ere nazioarteko eremua nagusitzen baita eremu administratibo hurbilagoenen aldean.


### 3.2. Ingurumenaren alorrean hartutako neurrien inguruko ezagutza maila

Lehen aipatutako maila administratibo bakoitzak ingurumenaren alorrean hartzen dituen neurriez dagoen ezagutza mailak behera egiten du, espero zen bezala, baloratu beharreko eremu administratiboa urruntzen den neurrian. Salbuespen bakarra nazioartean hartutako neurriak dira, estatu mailan hartutakoak baino ezagunagoak baitira.

Ikus daiteke, beraz, biztanleriaren % 36 inguruk informazio asko edo nahikoa duela udal-erriek ingurumenaren alorrean egiten dutenari buruz. Ehuneko horiek beherantz egiten dute progresiboki gainerako maila administratiboetan: % 28 autonomia erkidego eta probintzia mailan; % 18 nazioarteko mailan; eta % 14 estatu mailan.

51. GRAFIKOA.

#### NOLA BALORATZEN DUZU LEHEN AIPATUTAKO MAILA BAKOITZAK INGURUMEN POLITIKAREN ALORREAN EGITEN DUENARI BURUZ DUZUN EZAGUTZA?



Iturria: Ihobe 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK

— Lurraldearen ikuspuntutik, Bizkaiko jokabideak apur bat be-reizten da gainerako lurraldeen jokabidetik; izan ere, adierazi-tako ezagutza maila txikiagoa da aztertutako maila administra-tibo guztiei dagokienez.

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK


— Ez da desberdintasun esanguratsurik antzematen aztertutako alderdi soziodemografikoen arabera. Zerbait aipatzekotan, egindako azterketa osoan adierazi denaren ildotik, errepikatu behar da ikasketa maila eta estatus soziala direla, orain ere, maila administratibo bakoitzak garatutako neurriei buruzko ezagutzan eragin handiena duten aldagaiak; hala, ezagutza mailak gora egiten du ikasketa maila edo estatus soziala igotzen den neurrian.

### 3.3. Ingurumenaren alorrean bultzatutako legediaren aurrean dagoen pertzepzioa

Instituzio horiek garatzen dituzten neurri eta politikak ezagutzen dituztela dioten herritarren artean, erdiek uste dute asko (% 6) edo nahikoa (% 44) laguntzen diotela ingurumenaren babesari. Nolanahi ere, % 43k uste du ez dela aski (gutxi laguntzen dio ingurumenaren babesari, edo ez du batere lagungarria).

#### 53. GRAFIKOA.

#### ZURE USTEZ, ZER NEURRITAN DA LAGUNGARRIA ERAKUNDE HAUEK BULTZATUTAKO LEGEDIA INGURUMENA BABESTEKO?



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
OSO LAGUNGARRIA DA	6	5	5	8	6	6	10	6	6	5
NAHIKO LAGUNGARRIA DA	44	50	45	42	44	44	39	46	47	41
GUTXI LAGUNTZEN DU	38	35	41	36	39	38	36	38	38	40
EZ DU BATERE LAGUNTZEN	5	2	5	6	5	5	2	4	4	7
ED/EE	7	8	5	9	6	8	14	6	5	7

Oinarria: aipatutako maila administratiboetako batek ingurumenaren alorrean garatutako neurriak ondo edo nahiko ezagutzen dituzten herritarrak.

Iturria: Ilobe 2008, 2011.

Iritzi horiek ez dira asko aldatzen aztertutako aldagai soziodemografikoen arabera. Aipatzen da, dena dela, adin aldetik nagusiagoak diren herritarrak kritikoago azaltzen direla horren aurrean; izan ere, % 47k uste du legedia honek ez duela ingurumenaren babesa modu egokian bultzatzen, eta % 46k kontrako iritzia du.


## 4. EAEko INGURUMEN JARDUEREN NAHIKOTASUN MAILA

Ekobarometroaren aurreko edizioan, ingurumenaren alorrean EAEn garatzen diren jardueren nahikotasunari buruzko pertzepzio negatiboak nabarmenki igo ziren, hau da, jarduerak nahikoak ez zirela uste zutenen kopuruak gora egin zuen; edizio honetan, berriz, 2004an erregistratutako mailara itzuli gara ia.

Hala, herritarren % 46k uste du gehiago egin beharko litzatekeela ingurumenaren alde (2008an, hamar biztanletatik seik konpartitzen zuten iritzi hori), baina antzeko proportzio batek –% 40k– uste du nahikoak direla EAEn garatzen ari diren jarduerak (% 30 2008an).

### 54. GRAFIKOA.

**HERRIALDE BATZUETAN GAUZA GEHAIGO EGITEN ARI DIRA INGURUMENAREN ALDE, ETA BESTE BATZUETAN GUTXIAGO. ZURE USTEZ, EAEn ZER EGITEN ARI DA: NAHIKOA BAINO GEHIAGO, NAHIKOA, NAHIKOA BAINO GUTXIAGO?**



% EHUNEKO BERTIKALAK	GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOA			GENEROA		ADINA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONA	EMAKUMEA	15 - 24	25 - 44	45 - 64	+ 65
NAHIKOA BAINO GEHIAGO	5	5	6	4	6	4	7	5	4	7
NAHIKOA	40	45	40	39	42	39	44	36	42	43
NAHIKOA BAINO GUTXIAGO	46	41	46	49	45	47	45	50	48	38
ED/EE	9	9	8	9	7	10	5	8	7	13

Iturria: Ilobe 2004, 2008, 2011.

#### LURRALDE-ALDERDIAK


— Gipuzkoako biztanleria da kritikoena ingurumenaren alorrean garatutako jardueren aurrean. Ia herritarren erdiek uste dute ez dela nahikorik egiten.

#### ALDERDI SOZIODEMOGRAFIKOAK

— Adin ertaineko pertsonen (25 eta 64 urte bitartekoak) eta unibertsitateko erdiko edo goi mailako ikasketak dituztenek pentsatzen dute, neurri handiagoan, orain egiten dena ez dela nahikorik.



# ONDORIOAK





## 1. INGURUMEN INFORMAZIOA

- Euskal herritarrek uste dute **informazio maila handia dutela ingurumen-arazoei buruz;** maila hori **Europako batez bestekoa baino zertxobait handiagoa** da, eta, gainera, gora egiteko joera izan du azken urteotan. Horren arrazoia da, neurri batean, ingurumen-gaiek presentzia nabaria dutela hedabideetan, eta, halaber, EAEko herri administrazioen bidez gauzatu diren ingurumen-politiken eragina.
- Herritarren ustez, sumatzen duten **informazio-falta handiena produktu kimikoen edo genetikoki eraldatutako produktuen kutsadurak osasunean duen eraginari buruzkoa da,** lehen bezala. Pertzepzio hori bat dator bi eremu horien izaerarekin; izan ere, bereziki konplexuak dira eta oraindik ere oso ezezagunak, eta, gainera, zalantza handiak eta eztabaida sozial nabaria sortzen dituzte.
- **Informazio maila handiena** duten alderdiak, berriz, hauexek dira: hiri-arazoak, hondakinak eta zaborra; kontsumo-ohiturak; mugikortasunaren inpaktua eta zarata. Beraz, **herritarrengandik gertuen dauden arazoak dira, eurek zuzenean ikus baititzakete, eta haien kudeaketa administrazio gertuenen eskuetan dago.**
- Ingurumenari buruzko **informazio-iturri nagusiak telebista eta prentsa dira,** lehen bezala, eta neurri txikiagoan **irratia**. Hortik ondorioztatzen da beharrezkoa dela ingurumen-gaiek hedabide horietara eramatea eta bertan finkatzea, indartzea eta berriztatzea.
- **Internet** agertzen da **hazkunderik handiena duen informazio-iturri** bezala, batez ere **biztanleria-talde gazteenetan,** hots, 45 urtetik beherako taldeetan; 25 urtetik beherako artean, bigarren informazio-iturria: izatera iritsi da, garrantzi aldetik. Horrenbestez, Internet da **garatzeko marjina handiena** duen hedabidea, eta, hortaz, **etorkizunean** bertara zuzendu beharko lirateke bereziki ingurumen-informazioa hedatzeko ahaleginak, hedabide tradizionalei gehituta.

## 2. INGURUMEN JARRERA ETA JOKABIDEA

- Herritarren **gehiengo zabalak (% 72) uste du ingurumena babesteko ahaleginak egiten dituela;** pertzepzio hori ez da aldatu 2008 urtetik hona. Dena dela, ahaleginak egiteaz batera horrek emaitza positiboa duela uste dutenak herritarren **% 20 baino ez dira,** eta, beraz, **horiek soilik daude guztiz konbentzita beren ahaleginen erabilgarritasunaz.**
- Herritarrak bereziki **eszeptiko agertzen dira ahaleginaren erabilgarritasunaz** (% 41). Pertsona horiek diote ahaleginak egiten dituztela ingurumena babesteko, baina uste dute horrek ez duela efektu handirik izango **beste batzuek** (enpresak eta herritarrak) **ez badute gauza bera egiten.** Talde horrek biztanleria osoan duen pisua ikusita, badirudi beharrezkoa dela komunikazio- eta heziketa-politikak sakontzea, **ahalegin indibidualen eta herritarren erantzunkidetasunaren efektu positiboak bistaratu** eta kuantifikatu ahal izateko, eta, horrekin batera, jarrera aldaketaren ondorioz **jadanik lortu diren emaitzen** berri emateko.
- Konprometitu gabekoen taldea ere garrantzitsua da (**% 28**); hor sartzen dira **ingurumen-ahalegin gutxi egiten dituztenak eta inolako ingurumen-ahaleginik egiten ez dutenak.** Dena dela, kontuan hartzen badugu euskal biztanleriak garrantzi nabarmena ematen diela ingurumen-alderdiei, badirudi beharrezkoa dela jarreraren, **kontsumo** indibidualaren eta **ingurumen-inpaktuaren** arteko **loturan sakontzea.**

- Herritarrak **bereziki prest agertzen dira hondakinak gaika sailkatzeko (% 74)**; horrek islatuko luke euskal administrazioek azken urteotan gauzatu dituzten **informazio eta sentsibilizazio** kanpaina **eta jardueren eragina**. Dena dela, hiri-hondakinaren birziklapenaren ehu-nekoaren bilakaera nahiko geldirik egon da azken urteotan, % 31aren inguruan egonkortsu baita (2008); horrenbestez, komenigarria izango litzateke aztertzea zer den hiri-hondakinaren gaikako bilketaren maila mugatzen duena, hau da, ea faktore sozialak diren –herritarrek birziklapenaren alde duten jarrera teorikoaren eta beren benetako jardunaren arteko disoziazioa– edo hondakinak jasotzeko azpiegituren kudeaketarekin eta hornidurarekin zerikusia duten faktoreak.
- Halaber, **herritarrak neurri handian (% 64)** agertzen dira prest **garraio publikoa** gehiago erabiltzeko, ibilgailu publikoaren ordez. **Dena dela, ibilgailu pribatuaren erabilera maila egonkorrean mantentzen da** beste garraiabide batzuen aldean –garraio publikoa, bizikleta eta oinez–, edo **igoera txiki bat ere izan du**. Gaikako bilketaren kasuan bezala, itxurazko kontraesan horrek arrazoi desberdinak izan ditzake, hots: jarrerari lotutako faktoreen ondorioa izan daiteke (aurrejoera teorikoaren eta eguneroko jardun errealearen arteko disoziazioa), edo aurrejoera hori praxira eramaterakoan sistemak jartzen dituen mugen ondorioa (gabeziak garraio publikoaren irisgarritasunean eta eskaintzaren kalitatean, mugikortasun-eskariaren aldean).
- **Kontsumoaren arrazionalizazioari** lotutako **ekintzek** ere –etxebizitzetako energia-kontsumoa (% 40), hondakinaren sorrera (% 35), produktuen balio-bizitzaren luzapena (% 34)– garrantzi nabaria dute; neurri batean, ekintza horiei datxekien aurrezpen ekonomikoak bultzatzen ditu ekintza horiek, batez ere oraingo koiuntura ekonomikoan. Ingurumen-onuraren eta onura ekonomikoaren ideiak uztartzeak gero eta aukera hobea izan daiteke kontsumoari buruzko jarrera eta ereduaren aldaketa bultzatzerakoan.
- **Kostu ekonomikoa** atxikita duten **ekintzak** dira **gutxien baloratzen direnak**, bai kostu erantsia ekar dezaketen tokiko produktuen eta produktu ekologikoen erosketen kasuan (% 22) eta bai, bereziki, zergen igoera planteatzen denean ingurumenaren babesari laguntzeko (% 3). Pertzepzio hori arrunta da honezkero, baina badirudi gora egin dezakeela oraingo koiuntura ekonomikoaren eraginez. Zergen igoera onartzeko aurrejoera hain eskasa denez, beharrezkoa da planteamendu globalak egitea, hau da, kontsumo ekologikoaren aldeko pizgarri fiskalak eskaintzen dituzten erreforma fiskalak egin behar dira, baina presio fiskalaren maila orokorrari eutsiz.
- Herritarren ikuspuntutik, lantegiek jarraitzen dute izaten ingurumen-arazoaren eragile nagusiak (% 53); dena dela, nabarmendu behar da pertzepzio hori jaisten ari dela, herritarrei egozten zaien erantzukizuna igotzen den neurrian. Ikus daiteke, nolabait, **ingurumen-inpaktuaren erantzukizunaren pertzepzioa aldatzen ari dela, zeren ekoizpenean soilik kontzentratetik pasatzen ari baita ekoizpena eta kontsumoa kontuan hartzen dituen pertzepzio orekatuago batera**. Beraz, herritarrek neurri **handiagoan hartzen dute beren gain ingurumen-arazoetan duten erantzukidetasuna**.

### 3. INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIA DEN KONTSUMOA

- **Euskal gizartearen** talde handi batek –gero eta handiagoa– (% 62) uste du **baduela informazio nahikoa ingurumen aldetik zuzena den kontsumoa egiteko**. Horretarako, lagunari izan dira euskal administrazioek azken urteotan gauzatu dituzten ingurumen-politikak.
- Euskal **gizartearen gehiengoak** (% 80) **uste du** ingurumen aldetik jasangarria den kontsumo horren bidez **laguntza eman dezakeela ingurumenaren hobekuntzarako**; gainera,

gehiengo zabal bat (% 84) **prest egongo litzateke kontsumo-ohitura batzuk aldatzeko**, ingurumena hobeto errespetatzeko. Alde horretatik, herritarren erdiak baino gehiago **prest egongo lirateke gehiago ordaintzeko produktu batengatik, produktu horrek gutxiago kutsatzen badu**.

- Agerian geratzen da oraindik ere **badirela zailtasunak ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuak aurkitzeko** (% 54); hala eta guztiz ere, azpimarratu daiteke **zailtasun horiek gero eta gehiago murrizten ari direla**. Horren froga da produktu horiek aurkitzea oso erraza edo erraza dela dioten herritarren proportzioak igoera mardula (+% 11) izan duela azken hiru urteotan. Merkatuko eskaintzaren eta politika publikoen bilakaera lagungarria izan da joera horretarako; dena dela, garbi dago beharrezkoa dela produktuari eta beraren **ingurumen-kalitaterari buruzko informazio-politiketan sakontzea, lankidetza publiko-pribatuan** sakontzeaz batera, **produktu ekologikoen eskaintza zabaltzeko** eta produktu horiek eskuratzeko bideak hobetzeko, heldutasun handiagoa emanez.
- Gizartearen proportzio esanguratsu batek (% 40) –oraindik ere ez da gehiengoa– prestigio soziala egozten dio ingurumen aldetik jasangarria den kontsumoari; kontrako muturrean, aldiz, lau pertsonatetik bat ez dago batere ados horrekin. Etorkizunari begira, ingurumenari buruzko komunikazio- eta sentsibilizazio-politikek bideak bilatu beharko lituzkete **ingurumen aldetik zuzena den kontsumoari egozten zaizkion erakargarritasuna eta prestigio soziala handitzeko, hau da, kontsumo horri horrelako ezaugarriak egozteko bideak indartzeko**.
- Herritarren talde esanguratsu batek (% 37) uste du administrazioek rol eredugarria jokatzen dutela ingurumen aldetik jasangarria den kontsumoaren alorrean. Nolanahi ere, rol eredugarri hori betetzen ez dutela uste duten herritarrek (% 58) gehiengo izaten jarraitzen dute. Ondorioztatu dezakegu, beraz, **gizartea hasi dela konturatzeko herri administrazioek ingurumenaren alde azken urteotan egin duten lanaz**; aldi berean, baina, **oraindik ere aurrera egin behar da bai herri administrazioaren kontsumoaren murrizketan** eta bai egiten diren ekintzen **komunikazioaren hobekuntzan**.
- Laburbilduz, **badirudi euskal herritarren pertzepzioan jadanik txertatu ahal izan diren alderdiak** hauexek direla: **ohiturak aldatzeko prest egotea –orokorrean– eta horren erabilgarritasunez konturatzeko, horri buruzko informazio nahikoa** izateaz batera. **Kontrako aldean, politika publikoen bidez etorkizunean sakondu behar diren faktoreak** hauexek dira: **administrazioaren jokabide eredugarria hobetzea**, herritarrengana gai horri buruz zuzentzen den komunikazioa hobetzeaz batera; **prestigio sozial handiagoa egozteko ingurumen aldetik jasangarria den kontsumoari, eta produktu ekologikoen eskaintzaren irisgarritasuna hobetzea**.

#### 4. INGURUMEN EGOERARI BURUZKO PERTZEPZIOA

- Euskal herritar gehienek (% 85) kezkatuta jarraitzen dute ingurumen-arazoengatik; gainera, hiru pertsonatetik bat oso kezkatuta dago. Dena dela, azken hamarkada osoan etengabe igo ondoren, ingurumen-kezkaren maila apur bat jaitsi da azken aldi honetan, batez ere gure herrialdeak pairatzen dituen koiuntura ekonomikoaren eta langabeziaren eraginez. **Hala eta guztiz ere, esan dezakegu ingurumen-kezkaren maila nahiko egonkor mantentzen dela, goiko mailan, krisi ekonomikoa hain gogorra izan arren**. Horrek erakutsiko luke, nonbait, ingurumen-gaiak modu sakonean erroto direla euskal gizartean, unez uneko koiunturaren bilakaeraren gainetik.
- **Klima Aldaketa nabarmendu eta finkatzen da**, alde handiz, euskal gizarteak **kezkagarrientzat jotzen duen ingurumen-gai bezala** (% 45). **Bereziki garrantzitsuak** diren beste gai batzuk **pertsonek eragindakoa ingurumen-hondamena, hondamen naturalak eta uraren kutsadura** dira. Oro har, intentsitate eta neurri handiko ingurumen-inpaktua duten

gaiak dira; gainera, sortzen duten kezka are handiagoa da haien kontrola eta prebentzioa ez daudelako –zuzenean– herritarren eta eragile publiko hurbilenean eskuetan. **Neurri txikiagoan, uraren kutsadura eta dibertsitatearen galera ere aipatzen dira.**

- Euskal herri administrazioak datozen urteotarako aurreikusi dituen **ingurumen-politikak koherenteak** dira, nonbait, **Klima Aldaketaproblematika nagusizat hartzen duen iritziarekin**. Besteak beste, azpimarratzekoak dira Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Legea, Ingurumenari buruzko III. Esparru Programa (2011-2014), Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana, Euskadiko Energia Estrategia 2020, Mugikortasunaren Legea, eta, halaber, Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Udal Planak –Tokiko Agenda 21, eta udalerrietako Energia Jasangarriko Ekintza Planak («PAES»)–.
- **Kezka gutxien** sortzen duten alderdiak hauexek dira: **garraiotik ondorioztatzen diren inpaktuak, hiri-arazoak, hondakinak eta zarata**. Ez dirudi kezka txikiago hori beti lotuta dagoenik, **modu proportzionalan, alderdi horien ingurumen-inpaktuarekin eta bizikaltatean izan dezaketen eraginekin**. Hori baino gehiago, eta beren inpaktu objektibotik haratago, herritarrengandik gertuago dauden alderdiak dira, herritarrek hobeto ezagutzen dituztenak –informazio asko dute horiei buruz–, inpaktu etengabea dutenak baina une jakin batean bereziki nabarmentzen ez direnak; gainera, herri administrazioek neurri handiagoan esku hartu dute arazo horien alorrean.
- Herritarrek duten pertzepzio orokorraren arabera, **ingurumenaren egoerak hobera egin du azken urte hauetan udal mailan (% 62) eta EAE mailan (% 56)**; ildo beretik, hamar biztanletatik batek soilik uste du egoera horrek okerrera egin duela. Pertzepzio positibo hori **bat dator ingurumen-kalitateak** EAEn eta beraren udalerrietan –oro har– **izan duen hobekuntzarekin, hiri-esparruetako konfort eta bizigarritasunaren hobekuntzarekin, eta administrazioak eta enpresek abiatutako ingurumen-politika zabalekin**.
- Kontrako aldean, **munduko ingurumen-egoerari buruz dagoen pertzepzio negatiboa azpimarratu behar da, zeren herritarren % 42k uste baitu nabarmenki okertu dela**, eta % 17k soilik uste du hobera egin duela. Pertzepzio negatiboago horrek **islatzen du Klima Aldaketak** herritarren kezketan duen **pisua** –mundu osoa ukitzen duen arazoa da–, eta baita **ingurumen-alderdiei buruzko pertzepzio globalagoa** ere, honako gai hauek barne sartuta: hondamen naturalak, pertsonen eragindako ingurumen-hondamenak eta baliabide naturalen agorpena.

## 5. KLIMA ALDAKETA

- **Klima Aldaketa ebidentzia bat da euskal herritarren gehiengoarentzat (% 69)**; dena dela, lau pertsonatetik batek jarrera eszeptikoa du beraren existentziaren aurrean; gainera, fenomeno horrek gora egin du 2008tik 2011ra (+ % 6). Eszeptizismoaren igoera hori Espainiako beste autonomia erkidego batzuetan eta Europako zenbait herrialdetan ere gertatu da. Besteak beste, fenomeno hauek izan dira igoera horrekin zerikusia izan dutenak: klimari lotutako alderdiak –Europar negu hotzak izan dira, munduko tenperaturak igotzeko duen joera gorabehera–, Nazio Batuen Kopenhageko Konferentziak sortutako itxaropen handia eta gero izandako porrota, eta Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Taldearen (IPCC) lanen inguruan sortutako eztabaida.
- Biztanleriaren gehiengoak jarraitzen du **oso edo nahiko kezkatuta azaltzen Klima Aldaketak Euskadin duen inpaktuagatik (% 63)** eta inpaktu horrek bere eguneroko bizimoduan etorkizunean izan dezakeen eraginagatik (% 57). **Dena dela, horri buruzko kezka maila modu nabarian jatsi da azken urteotan**. Horren arrazoiak, nonbait, Klima Aldaketaren inpaktuaren inguruko pertzepzioa murriztera eramanean duten faktoreez gain, koiantura eko-

nomikoa eta langabezia izan dira, indar handiz, horrek igoarazi baitu faktore sozioekonomikoei buruzko kezka maila.

- Herritarren gehiengoak uste du **nahiko informatuta** dagoela **Klima Aldaketaren kausa eta ondorioez (% 57)**; ehuneko horrek igoera txiki bat izan du azken hiru urteotan. Orobat, **Klima Aldaketaren aurka borrokatzeko gauzatu daitezkeen ekintzei buruzko informazio** nahikoa dutela uste duten herritarren proportzioa ere **handia da (% 51)**, nahiz eta aurreko kasuan baino txikiagoa izan; gainera, kolektibo horren pisua **aldatu gabe egon da azken hiru urteotan**. Badirudi, beraz, **herritarrek informazio gehiago eskatzen dutela** Klima Aldaketaren aurka jarduteko formaz, **eta ez hainbeste fenomenoari berari buruzko informazioa**.
- 2008 eta 2011 urteen artean, **igoera mardula izan du (% 35etik % 72ra) ekintza indibidualen bidez Klima Aldaketaren ondorioak murriztu daitezkeela uste dutenen proportzioak**, eta, beraz, askoz ere pertsona gehiagok pentsatzen dute herritarrek badutela **erantzunkidetasuna klima-aztarna indibidualaren murrizketan**. Halaber, gehiengo zabal batek (% 79) dio **prest dagoela bere eguneroko ohiturak aldatzeko** Klima Aldaketaren ondorioak murrizten laguntzeko. Igoera handi hori bultzatu duten faktoreak hauexek izan dira, besteak beste: sasoi horretan hedabideek Klima Aldaketara zuzenduta duten arreta handia, eta Klima Aldaketaz sentsibilizatzeko xedez Euskadiko herri administrazioek eta gizarte-eragileek garatutako jarduera ugariak.
- Kontsumo jasangarriaren kasuan oro har gertatzen den bezala, euskal gizartearen parte esanguratsu batek (% 38) –gehiengo ez bada ere– prestigio soziala egozten dio Klima Aldaketaren ondorioak murrizten laguntzen duten ekintzak gauzatzeari, nahiz eta lau pertsonatatik bat ez dagoen batere ados horrekin. Beraz, komenigarria izango litzateke etorkizuneko ingurumen-komunikazio eta –sentsibilizazio politikek ildo horretan sakontzea, **karbono-aztarna indibiduala eta Klima Aldaketaren gaineko inpaktua murrizten duen kontsumoa praktikatzeari eta horri lotutako jardueri egozten zaien prestigio soziala eta horien erakargarritasuna bultzatzeko**.
- Hiru pertsonatatik batek soilik uste du administrazioek rol eredugarria jokatzten dutela Klima Aldaketaren aurkako borrokan; oraindik ere, gehiengo dira rol hori betetzen ez dutela uste dutenak (% 60). Hala eta guztiz ere, maila soziokulturala igotzen den neurrian, handiagoa da administrazioak jokatzten duen rol eredugarriaren aitortza. Pentsa daiteke, beraz, **gizartea –batez ere informatuena– hasi dela konturatzten** administrazio publikoek Klima Aldaketaren aurkako borrokan inplikatzeke azken urteotan **egindako ahaleginez**. Dena dela, emaitza horiek ikusita, badirudi herri administrazioek **aurrera egin behar dutela Klima Aldaketaren aurkako borrokan eta karbono-aztarnaren murrizketan**; horri lotuta, beharrezkoa da **ekimen horren komunikazioa indartzea, poliki-poliki gizarte osoarengana iritsi ahal izateko**. Badirudi gaur egun eta datozen urteotan horri buruz gauzatzten ari diren edo aurreikusita dauden ekimen legegileak eta ekintza politikoa (Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Legea, Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana, Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Udal Programak eta Energia Jasangarriako Ekintza Planak...) bat datozela, modu garbian, eskari horrekin.
- Laburbilduz, euskal gizarteak uste du klima aldaketa ebidentzia bat dela eta kezkatuta agertzen da beraren ondorioen aurrean. Gainera, prestasun handia adierazten du bere ohiturak aldatzeko, klima-aztarna murrizten laguntzeko, zeren uste baitu aldaketa hori lagungarria izan daitekeela Klima Aldaketaren gaineko inpaktua murrizteko. Kontrako aldean, **politika publikoen bidez etorkizunean sakondu** behar diren faktoreak hauexek dira: **administrazioaren jokabide eredugarria** eta herritarrei horretaz zuzentzen zaien komunikazioa hobetzea; **prestigio sozial handiagoa** ematea Klima Aldaketa murriztera zuzendutako ekintzei; eta **informazio gehiago ematea herritarrei beren karbono-aztarna murrizteko egin dezaketenaz**.

## 6. BIODIBERTSITATEA

- **Biztanleriaren % 29k soilik dio «biodibertsitate» kontzeptuaren esanahia ezagutzen duela**; dena dela, lau pertsonatatik hiruk horretaz hitz egiten entzun dute, eta **gehienak gai dira kontzeptu hori bere berezko alderdiekin lotzeko**, hala nola habitaten eta animalia- eta landare-espezieen bariedadekin (eta/edo galerarekin).
- **Euskal herritarren % 10ek soilik entzun du Natura 2000 Sareaz hitz egiten**. Proportzio hori Europakoa (% 21) baino txikiagoa da, eta hori ere ez da bereziki altua. Kontrako aldean, azpimarratu behar da **Euskadiko Biodibertsitate Zentroaz hitz egiten entzun dutela dioten** herritarren proportzioa nahiko handia dela (% 31), 2008ko ekainean eraturako ekimen bat izan arren.

## 7. INGURUMENA TOKIKO ESPARRUAN

- Udalerrietako tokiko alderdien artean, herritarrengan **eragozpen handienak** sortzen dituztenak dira **zarata (% 31)** eta, neurri txikiagoan, **hondakinak (% 21) eta airearen kutsadura (% 17)**. Zaratak pisu handiagoa du Bizkaian eta Gipuzkoan, eta airearen kutsadura bereziki esanguratsua da Bizkaian, eragozpen gehien sortzen dituen bigarren alderdia baita. Hiru kasu horietan, haien hobekuntza ez da nahikoa edo guztiz egokia izan, EAE mailako ingurumen-adierazleetan islatzen den bezala. Beste alde batetik, hondakinei eta airearen kutsadurari dagokienez, Ingurumenaren III. Esparru Programak (2011-2014) arreta berezia zuzentzen die.
- Euskal gizarteak **ezagutza maila apala du Tokiko Agenda 21 programari buruz**, herritarren % 14k soilik ezagutzen baitu; dena dela, badirudi balio hori **asko alda daitekeela udalerrriaren arabera** eta Tokiko Agenda 21en prozesuak bakoitzean hartzen dituen dimentsio eta proiektzio publikoaren arabera. Dirudienez, ezagutza oztopoa dezakeen elementu bat da horrelako tokiko ekimenean dituzten zailtasunak telebistan agertzeko, horixe baita ingurumen-albisteen iturri nagusia.
- Herritarrek **ingurumen-alderdiekin** (% 46), **ingurumen-hezkuntzarekin eta parte-hartzearekin** (% 32) eta **ingurune naturalarekin** (% 22) lotzen dute gehienbat Tokiko Agenda 21 programa, eta neurri txikiagoan mugikortasunarekin eta hiri-antolamenduari (% 16) edo alderdi sozioekonomikoekin (% 12). Pertzepzio hori arrazoizkoa da eta bat dator gai bakoitzak orain arte hartu duen pisuarekin eta gai horiek bultzatu dituzten sailekin.
- Eskolako Agenda 21en inguruko ezagutza maila ere apala da, eta ia berdina da Tokiko Agenda 21en inguruko ezagutza mailarekin.

## 8. INGURUMEN POLITIKAK

- **Euskal herritarren gehiengoak (% 63) adierazi du, modu garbian, EAEn oraingo helburu nagusia dela aberastasuna sortzea eta enplegua areagotzea**. Proportzio horrek bikoiztu egiten du orain dela hiru urteko balioa; iritziak argi eta garbi islatzen du gure herrialdeak gaur egun pairatzen dituen krisi ekonomikoaren eta langabeziaren gogortasuna, eta baita horrek hedabideen aldetik jasotzen duen arreta ere. Horren ondorioz, gainerako helburuen garrantzia nabarmenki jaisten da, ingurumenaren babesa eta kontserbazioa ere barne sartuta; izan ere, helburu hori EAEn helburu nagusia dela uste dutenen proportzioa %12tik % 5era jaitsi da 2008tik 2011ra, 2008an zuen 4. laugarren postuari eutsi badio ere.
- EAEn **etorkizuneko helburu nagusiez** hitz egiten badugu (hemendik hamar urtera), **abertasuna sortzea eta enplegua areagotzea** mantentzen da helburu nagusi bezala, kasu honetan

- % 27rekin** soilik egiten badu ere; ingurumenaren babesa eta kontserbazioa, berriz, **% 22raino** hazten da. Horrenbestez, **etorkizunari begira, ingurumena EAEn bigarren helburutzat hartzen da**; dena dela, 2008an aurreneko aldiz lortutako lehenengo postua galtzen du, aberastasuna eta enplegua sortzearen truke (2011).
- EAEn **hamar biztanletatik seik uste dute ingurumenaren egoerak baduela eragina beren bizi-kalitatean, nahiz eta iritzi horrek atzerapen nabaria** erakusten duen 2008 urtean eragin horri eman zitzaion garrantziaren aldean. Faktore ekonomikoak finkatzen dira bizi-kalitatea baldintzatzen duten faktore nagusi bezala, eta hori bat dator oraingo koiuntura ekonomikoarekin. Kasu batzuetan, esan daiteke ingurumen-faktoreen eraginaren jaitsierak lotura izan dezakeela ingurumen hurbilenaren hobekuntzaz dagoen pertzepzioarekin; izan ere, inkestan modu garbian agertzen den pertzepzio horrek badu eragina bizi-kalitatearen hobekuntzaz dagoen pertzepzioan.
  - Oraingo koiuntura gorabehera, herritarrek **konbentzimendu handiz** diote klase politikoak **politika ekonomiko eta sozialei ematen dien garrantzi berdina eman beharko liokeela ingurumenari** (% 78); dena dela, berriz ere krisi ekonomikoaren gordintasunak bultzatuta, iritzi horrek % 11ko jaitsiera izan du.
  - Alde horretatik, **biztanleriaren erdiak uste du ingurumen-politikak bultzatu behar direla lehentasunezkoak direlako eta etorkizuneko aukera ekonomikoa ere badirelako; % 31 politika horiek mantentzearen alde azaltzen da**, lehentasunezkoak izaten jarraitzen dutelako, eta **% 18k** soilik uste du **murriztu egin behar direla, horren ordezkari politika sozialean eta enplegua sustatzeko politiketan kontzentratzeko**.
  - Orokorrean, euskal herritarrek askoz ere gehiago kezkatzen dira orain alderdi ekonomikoengatik eta enplegu-alderdiengatik, eta arreta handiagoa zuzentzen dute gai horietara. Dena dela, azpimarratu behar da **ingurumen-alderdiek lortu dutela interes maila handia mantentzea herritarren artean, zeren adierazten baitute oso helburu politiko garrantzitsuak direla orain, eta bereziki etorkizunean**. Gainera, ingurumen-alderdiak **etorkizuneko garapen ekonomikorako aukera kontsideratzen dira, politika ekonomiko eta sozialen oztopo kontsideratu beharrean**.
  - Ingurumen-politikei buruzko erabakiak **hartu behar dituen administrazio maila zein izan behar den** galdetuta, herritarrek **udal maila (% 36) eta nazioarteko maila (% 29)** lehenesten dituzte; hortik nahiko urrun, autonomia erkidegoaren maila (% 13), estatua (% 11) eta probintzia (% 4) datoz. Horrenbestez, badirudi hor bi faktore elkartzen direla: alde batetik, **herritarrek aitortzen dituztela tokiko eremutik edo eremu hurbilenetik jardutearen onurak**; bestetik, herritar horiek **izaera globala egotzen dietela ingurumen-arazoei**, batez ere Klima Aldaketari, horixe baita elkarrizketatutako pertsonen kezkarrientzat jotzen duten alderdia. Tokiko jasagarritasun-politikek Tokiko Agenda 21en bidez EAEn izan duten bultzada sendoa bat dator pertzepzio horrekin.
  - Administrazioaren maila bakoitzak ingurumen-politikaren alorrean aurrera daramatzen jardueren gaineko **ezagutza maila proportzionala izaten da, gehienetan, administrazioak herritarrengandik duen hurbiltasunarekin**; beraz, herritarrek udalaren jardunari buruz dute informazio gehien.
  - Herritarren proportzio garrantzitsu batek (**% 46**) uste du EAEn **behar baino gutxiago egiten ari dela ingurumen-politiken alorrean**; aldi berean, baina, oso nabarmena da nahikoa egiten dela uste dutenen proportzioa (% 40), edo nahikoa baino gehiago egiten dela uste dutenena (% 5), azken urteotan igoera mardula izan baitute. **Oraingo ingurumen-politiken irismena eta intentsitatea finkatzearen edo sendotzearen aldeko interesa adierazten da, nahiz eta, dirudienez, eskari hori moteldu egin da azken hiru urteotan**, seguruenik arazo sozial eta ekonomikoak areagotu izanaren eraginez.



